

KOIUNTURAZ

65. zkia. – 4. HIRUHILEKOA

Aldizkari hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.euskadi.net/ekonomia>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

ekonomia@ej-gv.es

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: BI-1.576-94

ISSN 1132-6123

AURKIBIDEA

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA.....	1
EAE-KO EKONOMIA 2008KO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN	8
EAEko ekonomiaren testuingurua	8
Ekoizpena eta eskaria.....	14
Ekoizpen jarduera	15
Eskariaren osagaiak	19
Kanpo saldoa eta lehiakortasuna	21
Lan merkatua.....	29
Prezioak, kostuak eta soldatak	33
Arlo publikoa.....	39
Finantza arloa	42
EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK	47
Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak	47
EAErako aurreikuspenak epe laburrean	54

EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

2008ko hirugarren hiruhilekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) ekonomiak 2007ko udan hasi zuen moteltzeko joera areagotu zuen eta barne produktu gordinaren aldakuntza tasa %1,9an kokatu, hots, azken hamabost urteko datu txikienean. Azken lau hiruhilabeteetan, EAEko ekonomiak erdira jaitsi du hazkunde erritmoa, urte arteko aldakuntza tasa bi puntu baino zertxobait gehiago gutxitu zuen prozesu batean. Hala eta guztiz ere, gehikuntza tasaren beherakada antzekoa izan da Europako herrialdeetako batez bestean eta Amerikako Estatu Batuetan (AEB), nahiz eta bi eremu horien aldean EAEko ekonomia oraindik puntu bat inguru gehiago hazten ari den. Hazkundearen moteltzea barne eskarian gauzatzen ari da, berau osatzen duten zenbait osagaik ahultasuneko zantzu garbiak erakusten baitute. Aitzitik, kanpo arloak azken urteetan izan zuen defizita zuzendu du eta une hauetan irudi neutroagoa eskaintzen du.

BARNE PRODUKTU GORDINA

1. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007		2008		
			III	IV	I	II	III
Europar Batasuna 27	3,1	2,9	2,9	2,5	2,3	1,7	0,8
- EAE	4,4	4,1	4,0	3,8	3,1	2,6	1,9
- Espainia	3,9	3,7	3,6	3,3	2,6	1,8	0,9
- Alemania	3,0	2,5	2,4	1,7	2,7	1,9	0,8
- Frantzia	2,2	2,2	2,4	2,2	2,0	1,2	0,6
- Italia	1,8	1,5	1,6	0,1	0,4	-0,2	-0,9
- Erresuma Batua	2,8	3,0	3,3	2,9	2,3	1,5	0,3
Amerikako Estatu Batuak (AEB)	2,8	2,0	2,8	2,3	2,5	2,1	0,7
Japonia	2,0	2,4	2,1	2,0	1,4	0,6	-0,3
Txina	11,6	11,9	11,5	11,2	10,6	10,1	9,0
India	9,8	9,3	9,2	8,9	8,8	7,9	7,6
Errusia	7,3	8,1	7,3	9,5	8,5	7,8	6,2
Brasil	3,7	5,4	5,5	6,1	5,9	6,1	6,8

Oharra: Serietan urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendu dira.

Iturria: NDF, The Economist, ELGE, Eustat eta Eurostat.

2008ko hirugarren hiruhilekoaren abagunearen ezaugarri aipagarriena garatutako ekonomietan bizi den erritmo galtzte bat-batekoa izan da. Finantza alorreko arazoak ekonomia errealerara eta ekonomia eragileen igurikimenetara aurrekaririk gabeko azkartasunez igaro dira eta aurreko

hiruhilabeteetako hazkunde tasa garrantzitsuak berehala gelditu ditu. Oraingoz, garapen bidean dauden herrialdeek hedatze ziklo batean murgilduta jarraitzen dute, baina pentsatzekoa da globalak diren finantza merkatuetan sortu diren arazoek eta herrialde aurreratueta eskariaren ahultasunak laster kalte egingo dietela ekonomia horiei ere. Are gehiago, herrialde horietako batzuetan, hazkundearen oinarrian lehengaiak daude, azken urteetan nabarmen garestitu baitira, herritarren bizi kalitatea hobetzera bideratu den aparteko diru sarrerak ekarri dituenak. Baina eskari orokorra ahulagoa izango dela aurreikusten denez, lehengai horien salneurriek behera egin dute (1. irudia) eta lehengaiak ustiatzen dituzten herrialde horien hazkunde ahalmena gutxituko da.

Zenbait lehengairen bilakaera eurotan neurtuta

1. irudia



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.


Garatutako ekonomien barne eskari ahulek sortzen duten testuinguru horretan, ekonomia bultzatzeko giltzak finantza merkatuetako egonkortzean, kredituaren suspertzean eta familien eskariaren hazkundera daude. Helburu horiek lortze aldera, ekonomia eta moneta agintariak zenbait neurri sorta onartu dituzte, besteak beste, inbertsio publikoa eta gordailuen bermea bultzatuz eta interes tasak gutxituz. Norabide horretan, Europako Banku Zentralak esku hartzeko interes tasa %2,5era jaitsi du, hiruhileko bakar batean 1,75 puntuko beherakada pilatuta. Hala eta guztiz ere, moneta bultzada hori ez da kreditu sistemara espero zen bezain azkar gertatu, eta euriborrak uko egin dio erritmo berean jaisteari. Hain zuzen ere, esku hartzeko tasaren eta euriborraren arteko aldea zabaltzen da 2008. urtean zehar eta ehuneko puntu oso bat gailentzen du, aurreko bi urteetako batez bestean ia puntu erditik gorago joaten ez zen bitartean (2. irudia). Finantza arloko beste arazo garrantzitsu bat burtsen merkatuen

bilakaera da, urte hasieran erakusten zuten balioaren %40aren inguruko balioa galdu dutelako. Indizeen beherakada nabarmen horrek begi bistan uzten ditu inbertitzaileek berenganatu dituzten igurikimen ezkorrak.


Finantza arloko adierazleak

2. irudia

Euriborraren eta esku hartze tasaren arteko aldea



Ibex 35



Iturria: Ekonomia eta Ogasun Ministerioa.

Gaur egun bizi dugun finantza eta kreditu krisiaren jatorria AEBetan dagoen, Atlantikoaren bi aldeetako erakundearen artean dauden harreman estuek garatutako eremu guztietara hedatu ditu bere eraginak. Izan ere, hala Europar Batasunaren multzoak nola AEBek aurreko hiruhilabeteetakoak baino urte arteko hazkunde tasa txikiagoak jaso zituzten, batean zein bestean %1era iritsi ez zirelarik (1. taula). Amerikar herrialdeari dagokionez, barne eskari pribatuaren bi osagaiak aldakuntza tasa negatibotan daude eta barne produktu gordinaren gehikuntza osoa arlo publikoaren eta kanpo saldoaren eskutik heldu zaie, dollarraren ahultasunak lagunduta. Europan, bereziki deigarria da Italiaren bilakaera, bertako BPG bi hiruhilekoz jarraian jaitsi egin baita urte arteko tasan eta atzeraldian egoteko zantzu ezin garbiagoak eskaintzen ditu. Eremu horretako beste herrialde garrantzitsu batzuek, hala nola Alemaniak, Danimarkak, Erresuma Batuak edo Espainiak, dagoeneko hirugarren hiruhilekoan tasa negatiboak jaso zituzten hiruhilabete arteko neurrian eta urte amaieran zailtasun handiagoak nozituko dituztela aurreikusten da. Japoniak ere egoera zail bati egin behar dio aurre, aurreko ekitaldian lortu zuen barne produktu gordinaren aurrean hiru hamarreneko jaitsiera jasota.


Espainiar eta britainiar ekonomien bilakaera bereziki larria da, azken urtean bizi duten moteltzeko joera gainontzeko herrialde nagusietakoa baino askoz ere biziagoa izan delako, neurri batean bi ekonomia horien hazkunde erritmoa biziagoa zelako, baina baita higiezin merkatuak herrialde horietan Europako gainontzeko ekonomietan baino garapen handiagoa izan zuelako ere. Espainiari dagokionez, 2006an eta 2007an Europar Batasuneko batez bestearen aldean lortu zituen zortzi hamarreneko alde positiboa ia osorik desagertu ziren 2008ko hirugarren hiruhilekoan. Langabezia tasa %11,3ra igo zen eta azken urteetan metatutako aurrekontu superabitaren orde, gero eta handiagoa den defizit bat dago, krisiari aurre egiteko sortua.

EAEko ekonomia ez da salbuespena garatutako ekonomiak, oro har, ezagutzen ari diren moteltzeko joeran eta 2008ko hirugarren hiruhilekoan aurreko hilabeteetan erakutsi zuen apaltzea areagotu zuen, urte arteko aldakuntza tasa %1,9an kokatuta, hots, aurreko datutik zazpi hamarren beherago. BPGren gehikuntza tasak jaso zuen jaitsiera osoa barne eskarian gauzatu zen, kanpo arloak berriro emaitza neutroa eskaini zuen bitartean (3. irudia). Kontsumo pribatuak bere hazkundera gutxitu zuen berriro eta %0,9 gehitu zen, azken hamabi urteko baliorik txikiena delarik. Enplegua sortzen jarraitu zen arren, igurikimene okertzeak eta aberastasun efektuaren galera garrantzitsuak kontsumo pribatuaren hedakuntza mugatzen dute, zuhurtasuneko aurrezki baten mesedetan. Kapitaleko eraketa gordinak ere kreditu bat lortzeko baldintza gogorragoak eta enpresen inguruan sortu den ziurgabetasuneko giroa nabaritu zituen eta urte arteko aldakuntza tasa %2,0ra mugatu zuen. Aitzitik, kontsumo publikoak arlo pribatuaren ahultasuna konpentsatzen jarraitu zuen, aldakuntza tasa %5,1 igo baitzen.


BPGren hiruhilabeteko hazkundera eta ekarpenak

3. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Eskarrien ekarpenak



Iturria. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Eskaintzaren ikuspegitik, eraikuntzak datu negatiboa (%-1,0) jaso zuen, hamaika urtez luzatu den goranzko ziklo bati amaiera emanez. Industriak bere urte arteko tasa gutxitu zuen berriro eta %1,0ko balioa lortu zuen, kontsumorako ondasunen arloko adarrek nozitu duten jarduera faltak kaltetuta. Txanponaren aurkia zerbitzuetan aurkitzen da, oraindik azpimarragarriak diren aldakuntza tasak lortu zituztelako, nahiz eta aurrekoak baino txikiagoak ziren. Administrazioari lotuta dauden zerbitzuek %5,6ko hazkunde tasa lortu zuten, arlo publikoak lehiakortasunerako ezinbestekoak diren hezkuntza eta osasuna bezalako zerbitzuak hobetzeko apustuaren ondorioz. Merkaturatzen diren zerbitzuek, berriz, %2,3ko aldakuntza tasa positiboa jaso zuten. Azkenik, ekoizkinen gaineko zerga garbiek balio erantsiak izandako tasara mugatu zuten beren hazkunde tasa.

BPGren hazkunde tasa txikiagoarekin batera, enplegu berria sortzeko ahalmena ere murriztu da. Hala eta guztiz ere, hirugarren hiruhilekoan lanpostuen kopurua berriro igo zen, oraingoan 5.500 laguneko zenbatekoan, urte arteko tasan %0,6 delarik. Horri esker, eta kontuan hartuta lan merkatuan sartzen ari den eskatzaile berrien kopurua ez dela oso handia, langabezia tasa %3,5ean jarraitu zuen, enplegu betetzat jo daitekeen maila baita. Ekoizpenari eta enpleguari lotutako ekoizkortasun irabaziak 2007. urteko batez bestean jasotako zenbatekoen antzekoak izan ziren eta aurreko hiruhilabetean lortutakoa baino bi hamarren txikiagoak bakarrik dira.

EAE-KO EKONOMIAREN ALDAGAI NAGUSIAK

2. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007		2008		
			III	IV	I	II	
BPG erreala	4,4	4,1	4,0	3,8	3,1	2,6	1,9
Enplegua	2,2	2,8	2,7	2,7	1,7	1,1	0,6
Ekoizkortasun irabaziak	2,1	1,3	1,3	1,1	1,4	1,5	1,3
Langabezia tasa	4,1	3,3	3,1	3,1	3,3	3,5	3,5
Kontsumoko prezioen indizea	3,4	2,8	2,5	4,0	4,3	4,5	4,8

Iturria: Eustat eta INE.

Inflazioak ekonomia errearen bilakaeraren inguruan agertu diren gertakariei erantzun die eta, hirugarren hiruhilabetean kontsumoko prezioen batez besteko igoera aurreko hiruhilabeteetakoa baino are handiagoa izan bazen ere, lehengaiak udazkenean izan zuten merkatzeak kontsumoko prezioen indizea %1,9ra jaitsi zuen abenduan. Urte arteko tasa hori dagoeneko Europako Banku Zentralak ezarritako helburuaren azpian dago eta nabarmen murriztu du Eurogunearekiko inflazio tarte. Are gehiago, datozen hilabeteetan ere lehengaien

merkatzea KPIren datuetara igaroko dela aurreikusten da, munduko eskaria oso ahul dagoelako. Beraz, prezioen bilakaeraz egiten den diskurtsoa oso hilabete gutxitan balizko estagflazio (ekonomiaren gelditzea inflazioarekin batera) baten arriskuez ohartaraztetik deflazio (prezioren mailaren etengabeko beherakada) baten arriskua aurreratzera igaro da. Azken aukera hau, oraingoz, ez dirudi gauzatuko denik.

Datozen hiruhilekoei begira, erakunde nagusiek 2009. urterako argitaratu dituzten aurreikuspenek atzeraldiko fase bat iragartzen dute garatutako ekonomia nagusientzat. Halaber, garapen bidean dauden ekonomien hazkunde erritmoa nabarmen gutxituko dela adierazten dute. Europako ekonomia nagusi guztietan BPG erreala jaitsi egingo da, eta baita Japonian eta AEBetan ere. Moneta agintariek eta gobernuek egitasmo asko bideratu dituzten arren eta interes tasak zein inflazioa ekonomiaren susperraldia lagunduko duten mailetan egongo diren arren, konfiantza berreskuratzea ezinbestekoa izango da goranzko ziklo bat abiarazteko, eta analisigileen igurikimenek ez dute aurreratzeko eskaria epe laburrean suspertuko denik.

EAEko ekonomiari dagokionez, Eusko Jurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egin dituen aurreikuspenek adierazten dute gaur eguneko moteltzeak aurrera jarraituko duela eta 2009. urtearen erdialdean geldialdiko balioetara hurbilduko dela. Hortik aurrera, ez dirudi arazoez okerrera egingo dutenik, baina ezin da ziurtatu goranzko beste ziklo bati ekingo dionik ere. Gehiago aurreikusten da oso hazkunde mugatuko aldi bat. Edozein modutan, ez da aurreikusten 1994. urtean bizi zena bezalako susperraldi bizkorrik. Garai hartan, BPGren jaitsiera arin baten ondoren ekonomiak susperraldi sendo bat lortu zuen, %3tik gorako tasak jasota. Inguruneko ekonomien ahultasunak ez du aukerarik ematen pentsatzeko kanpo arloa EAEko ekonomia behar den sendotasunaz suspertzeko gai izango denik

Eskariaren ikuspegitik, arlo pribatuari lotuta dauden osagaiek indarra galtzen jarraituko dute. Kontsumo pribatua ia ez da haziko eta familiek beren gastua aberastasun gutxiagoko, lanpostuen galerako eta soldaten igoera apalagoko egoera batera egokitu beharko dute, inflazioaren eta interes tasen beherakadak kostuak arinduko dizkieten arren. Saltzeko itxaropen txikiak higiezinaren eta ekoizpen inbertsioaren beherakada ekarriko du 2009. urte osoan zehar. Aitzitik, administrazio publikoa ekonomiaren bultzagilea izango dela aurreikusten da, hala inbertsioaren atalean nola kontsumoaren bilakaeran. Hain zuzen ere, kontsumo publikoaren gehikuntza %5aren inguruan kokatu daiteke 2009. urtean. Azkenik, EAEko barne eskaria inguruneko ekonomia baino gehiago haziko denez, litekeena da kanpo saldoak berriro ekarpen negatiboa egitea BPGren hazkundeari, esportazioen hazkunde erreala inportazioena baino gehiago moteltzen bada.

Balio erantsia guztira puntu erdi bat haziko da 2009. urtean, eraikuntza, industria eta lehen arloa aldakuntza tasa negatibotan egongo direlarik. Industriaren balio erantsiaren hazkunde tasa negatiboa izan daiteke 2008ko laugarren hiruhilekoan bertan, txosten honek estaltzen duen aurreikuspen aldi osoan suspertzeko joerarik hauteman gabe. Zerbitzuek emaitza positiboak eta egonkorrak lortuko dituzte merkaturatzen ez diren zerbitzuen sendotasunari esker. Aitzitik, merkatuan saltzen diren zerbitzuek kontsumo pribatuaren ahultasuna eta enpresen jarduera falta nabarituko dituzte.

EAE-RAKO AURREIKUSPENEN LABURPENA

3. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2008	2009	2008	2009			
			IV	I	II	III	IV
BPG errealak	2,2	0,5	1,0	0,7	0,3	0,5	0,6
BPGren deflatoarea	3,8	2,1	3,5	2,8	2,0	1,8	1,8
Enplegua	0,9	-0,7	0,1	-0,5	-0,9	-0,7	-0,7
Langabezia tasa	3,7	5,1	4,4	4,7	5,0	5,3	5,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Prezioak gutxiago haziko direnez, BPGren deflatoarea nahiko apalak izango diren balioetan kokatuko da. 2009. urte hasieran lanpostuak galtzeko joera agertuko da eta gutxienez urtea amaitu arte jarraituko du. Horren ondorioz, langabezia tasak gorakada bat ezagutuko du %5aren gainetik kokatuko duena. Tasa hori ez da bereziki altua, neurri batean biztanleriaren piramideak langabezia kontrolatzearen alde jokatzeko duelako, zeren eta erretiroko adinera iristen diren langileen kopurua (aurretiazko erretiroak kontuan hartu gabe) gehiago dira lan merkatuan parte hartzeko legezko adina betetzen dutenena baino. Horrek errazagoa egingo du orain langabezia xurgatzea, baina ekonomiaren susperraldia hasten denean arazo larria izan daiteke trebatutako langileak lortzea.

EAE-KO EKONOMIA 2008KO HIRUGARREN HIRUHILEKOAN

EAEko ekonomiaren testuingurua

Munduko ekonomiaren jarduerak okerrera egin zuen berriro urteko hirugarren hiruhilekoan. Urtebete luze batez ezegonkortasun etengabea pairatu ondoren, finantza merkatuetako egoera irailean okertu zen, konfiantza krisi larria sortuz. Krisi hori ez zen aurreratutako ekonomietara bakarrik hedatu eta garapen bidean dauden herrialdeetara ere iritsi zen, ordura arte bertako merkatuak finantza zurrumbiloetatik salbu egon ziren arren.

Desorekez beteriko testuinguru horretan, munduko ekonomiak hazkundera moteltzeko joera garbia erakutsi zuen, ekonomia eremu nagusiei kalte egin ziena. Izan ere, AEBetan, langabeziaren hazkunderak, kredituaren izozteak eta higiezinaren ondarea galtzeak kontsumitzeko gogo apaldu zuten. Aldi berean, bertako enpresa nagusiek arazo larriak pairatzen zituzten. Horregatik guztiairengatik, 2008ko hirugarren hiruhilekoan, ekonomia horren hazkunde tasa %0,7 baino ez zen izan. Japoniak, berriz, atzeraldian sartzeko aukerak areagotu zituen, udako hilabeteetan hazkunde tasa negatiboak jasota, esportazioen ahultze azkarraren ondorioz.


Europar Batasunean, jardueraren moteltzea eremu horretako ekonomia nagusietara hedatu zen. Zehazkiago adierazita, Erresuma Batuan higiezinaren krisia areagotu zen eta finantza jardueraren amiltzea handitu. Azken sektore honek BPGren %15 ekartzen du, beraz 1992. urtearen erdialdetik jasotako tasarik txikiena izan zuen. Alemaniak eta Frantziak erdira murriztu zuten aurreko hiruhilekoan lortutako hazkunde erritmoa. Espainian, gastu pribatuaren ahultasunak eta lan merkatuaren okertzeak 1996. urtetik inoiz jaso den BPGren hazkunderik txikiena ekarri zuten. Europako herrialde askok bizi duten egoera ekonomikoa laurogeita hamarretako hamarkadaren hasierakoa bezalakoa da, neurri batean. Garai hartan ere hazkunde tasak amildu ziren eta langabezia oso bizkor areagotu. Baina orduko horretan ez bezala, inflazioa gaur egun kontrolpean dago.

Garapen bidean dauden merkatuek ibilbide hobea erakutsi zuten. Ekonomiaren jarduerak sendoa izaten jarraitu zuen, baina, oro har, moteltzeko joera izan zuen, batez ere garatutako herrialdeetara esportatzeko orduan aurkitzen dituzten arazo gero eta handiagoen ondorioz eta herrialdean bertan kontsumitzaileen eskaria ahuldu delako. Garatzen ari diren herrialdeek munduko jarduerari ekarpenak egingo dizkioten arren, azken gertakariak eta mundu mailan dagoen ziurgabetasunak agerian uzten dute hauek ere krisi globalaren eragina nozituko dutela.


Barne produktu gordina
Urte arteko aldakuntza tasak

4. irudia


Europar Batasuna




AEB




Alemania




Frantzia



Erresuma Batua



Japonia



Iturria: Eurostat.

Estatubatuar ekonomiak 2008ko hirugarren hiruhilekoan bizitasuna nabarmen galduko zuela iradokitzen zuten aurreikuspenak bete zituen. Hain zuzen ere, barne produktu gordinak jaso zuen %0,7ko hazkundea 2001. urteko atzeralditik izandako datu apalena izan zen. Kontsumoari eta inbertsioari zergen bidez eman zieten bultzada agortuta, barne eskariaren bi osagai horiek beherakada garrantzitsua nozitu zuten. Gertakari hori bereziki larria da herrialde horretan, kontsumo pribatua BPGren bi herenak direlako. Emaizta onak izan zituen arren, gastu publikoaren gehikuntza eta merkataritzako defizit txikiagoa ez ziren nahiko izan beste bi osagaien beherakada berdintzeko. Barne eskariaren narriaduraren aurrean, kanpo arloak bultzatu zuen ekonomiaren jarduera. Hala ere, inportazioak gutxiago hazi ziren arren, esportazioek indarra galdu zuten aurreko hiruhilabeteko emaitzaren aldean eta kanpo saldoaren ekarpena txikiagoa izan zen. Beste aldetik, KPI indizea uztailean %5,6ra igo ondoren, motelduz joan zen eta azaroan %1,1ean kokatu zen. Lan merkatuak nabarmen ahuldu zen eta langabezia tasa %6,7ra igo azaroan, lanpostu asko galduta.

INGURUNeko EKONOMIEN ALDAGAI NAGUSIAK

4. TAULA

	2006	2007	2007		2008		
			III	IV	I	II	III
BPG erreala							
AEB	2,8	2,0	2,8	2,3	2,5	2,1	0,7
Japonia	2,0	2,4	2,1	2,0	1,4	0,6	-0,3
EB - 27	3,1	2,9	2,9	2,5	2,3	1,7	0,8
- Alemania	3,0	2,5	2,4	1,7	2,7	1,9	0,8
- Frantzia	2,2	2,2	2,4	2,2	2,0	1,2	0,6
- Erresuma Batua	2,8	3,0	3,3	3,0	2,6	1,7	0,3
Inflazioa							
AEB	3,2	2,9	2,4	4,0	4,1	4,4	5,3
Japonia	0,2	0,1	-0,1	0,5	1,0	1,4	2,2
EB - 27	2,3	2,4	2,1	3,0	3,5	3,9	4,3
- Alemania	1,8	2,3	2,2	3,0	3,1	3,0	3,3
- Frantzia	1,9	1,6	1,4	2,5	3,3	3,7	3,6
- Erresuma Batua	2,3	2,3	1,8	2,1	2,4	3,4	4,8
Langabezia tasa							
AEB	4,6	4,6	4,7	4,8	4,9	5,3	6,0
Japonia	4,1	3,9	3,8	3,8	3,9	4,0	4,1
EB - 27	8,2	7,1	7,0	6,9	6,8	6,9	7,0
- Alemania	9,8	8,4	8,3	8,0	7,6	7,4	7,1
- Frantzia	9,2	8,3	8,1	7,9	7,6	7,7	8,0
- Erresuma Batua	5,3	5,3	5,3	5,1	5,2	5,4	5,8

Iturria: Eurostat eta ELGE.

Japonian, ekonomiak okerrera egin zuen oso azkar, esportazioen eta industria jardueraren ahultasunaren ondorioz, enpresen mozkinak jaitsi zirelako eta inbertsioa gelditu zelako, zazpigarren hiruhilekoz jarraian hazkunde negatiboak jasota. Alde positiboa kontsumo pribatuaren eskutik iritsi zitzaien, susperraldi arina izan zuelako, baina ez zen nahiko izan inbertsioaren beherakada bortitza konpentsatzeko. Kanpo arloak ekarpen txikiagoa egin zion hazkundeari, yenaren balio irabaziak eta eskari orokorraren ahultasunak kaltetuta. Inflazioaren igoerak gero eta txikiagoak izan ziren eta azaroan %1,0an kokatu zen, langabezia tasa %4,0aren inguruan, aldaketa gutxirekin, mantendu zen bitartean.

Bost urtez bi zenbakiko hazkunde tasa biziak lortu ondoren, Txinako ekonomia %9,0 hazi zen urteko hirugarren hiruhilekoan, 2003. urtetik jaso duen urte arteko tasarik apalena baita. Hazkunde erritmo txikiagoaren atzean, industria jardueraren moteltzea, Burtsaren bilakaera txarra eta, oso bereziki, kanpo eskariak eginiko ekarpen txikiagoa daude. Renminbiren balio irabaziak eta bezero nagusien barne eskariaren ahultasunak esportazioen hazkunde erritmoa galgatu zuten, Txinako ekonomia jardueraren bultzagile nagusia horiek baitira. Inflazioa kontrolatzeko hartu ziren neurriek eragin ona izan zuten eta KPI indizea %5,3ra jaitea lortu zuten, urteko lehen hiruhilekoan balio gorenetan kokatu ondoren, prezioak maila apalagoetan mantenduz.

Europar Batasunean, eremu horretako ekonomia nagusiek, hala nola Frantziak, Alemaniak edo Erresuma Batuak, izan zuten galgak Europako hazkunde erritmoaren murrizketa garrantzitsua ekarri zuen. Hain zuzen ere, Europar Batasuna %0,8 baino ez zen hazi, 2001. urteko lehen hiruhilekotik inoiz jaso duen tasa txikiena baita. Kontsumo pribatua indarge agertu zen eta berriro moteldu zen, gutxienez 1996. urtetik jaso duen hazkunde tasa txikiena jasoz. Inbertsioa, berriaz, hamarren bakar bat hazi zen. Azkenik, kontsumo publikoak goranzko norabidea hartu zuen sendo, baina beste osagaien moteltasunaren ondorioz, barne eskaria berriro apaldu zen. Kanpo arloak eman zuen albiste positiboa, BPGren hazkundeari bi hamarreneko ekarpena egin ziolako berriro, nahiz eta salmentak aurreko hiruhilabeteen erdia baino areagotu ez ziren. Prezioen bilakaera EBZk ezarri zuen egonkortasuneko helburura zuzendu ziren urte amaieran eta langabezia tasak egonkortasunari eutsi zion, udan jaso zituen balioetatik bi hamarren gora bakarrik kokatuta.

Ekonomia egoeraren bilakaerak gehien kaltetu zituen herrialdeen artean Alemania dago. Bere ekonomiaren hazkunde eredu, inbertsio sendo batean eta kanpoko salmentetan oinarrituta baitago, ez da baliagarria izan moteltzeko joerari aurre egiteko eta urteko hirugarren hiruhilekoan herrialdea %0,8 bakarrik hazi zen. Bigarren hiruhilekoz jarraian, kanpo arloak zenbait hamarren kendu zizkion hazkundeari eta inbertsioa, oraindik gehikuntza tasa garrantzitsuak jaso zituen arren, aurrekoan baino gutxiago hazi zen. Kontsumo pribatuak azken sei urteko tasarik txarrena erakutsi zuen. Alderdi positiboen artean, lan merkatuaren

bilakaera aipatu behar da, langabezia tasa %7,1era jaitsi zelako. Garatutako beste eremu batzuetan bezala, inflazioa oso azkar moteldu zen urteko azken hilabeteetan, abenduan %1,1eko tasan kokatu arte.

Frantziak ere erdira murriztu zuen bere urte arteko hazkunde tasa, %0,6ko gehikuntza lortuta. Jardueraren jaitsieraren atzean, familien gastu txikiagoa eta enpresen mozkin apalagoak aurkitzen dira, kontsumo pribatuaren hazkundera %0,6ra murriztu zutelako (azken hamaika urteko datu baxuena da). Inbertsioaren jaitsierak ere zerikusia du ekonomiaren emaitza eskasean, azken urteetan lortutako balioetatik asko urundu zelako. Kanpo eskariari mesedea egin zion esportazioen bultzada eta zenbait hamarren ekarri zizkion BPGren hazkunderari. Hala ere, frantziar ekonomiak ez dauka ekonomiaren jarduera bultzatuko duen eragile garbi bat. Prezioek ezagutu zuten moteltze arina ez zen nahiko izan kontsumo pribatua areagotzeko. Are gutxiago langabezia tasak goranzko joera leunari atxikitzen zion bitartean, dagoeneko %7,9ra iritsita.

Ekoizpenaren eta enpleguaren beheranzko joerek nabarmen areagotu zuten Erresuma Batuko motelaldia eta %0,3 baino ez zen hazi hirugarren hiruhilekoan, 1992ko erdialdetik inoiz jaso zuten tasa txikiena baita. Kredituen murrizketek, finantza arloaren eta etxegintzaren jardueren amiltzeak familien kontsumoa kaltetu zuten, 1992ko mailetara jaitsi baitzen, munduko atzeraldiak ekonomia nagusietako hazkundera gelditu zuen garaira, alegia. Horiek horrela izanda, kontsumo publikoa izan zen barne eskariaren hazkundera bultzatu zuen osagai bakarra, zeren eta inbertsioak, hala ekipamenduan eginikoak nola eraikuntzan eginikoak, motelaldia areagotu zutelako. Kanpo arloak ekarpen positiboa egin zion BPGren hazkunderari, baina ez zen oso handia. Erresuma Batuko lan merkatuak egonkortasun azpimarragarria erakutsia zuen azken urteetan, baina okerrera egin du. Prezioen bilakaerak gora egin zuen irailean %5,2ra arte, baina gero zertxobait apaldu ziren eta azaroan %4,1ean kokatu. Hala ere, prezioen tasa hori Europako batez bestearen oso gaineratik dago oraindik.

Urtebete eta erdiz ekonomiaren hazkundera gutxituz egon ondoren, Espainiako BPGk beste jaitsiera bat jaso zuen hirugarren hiruhilekoan, oraingoan %0,9an kokatu arte, 1995ean seriea hasi zenetik jaso duen gehikuntza tasarik apalena baita. Kredituaren murrizketak, prezioen garestitzeak eta, batez ere, eraikuntzaren bat-bateko geldialdiak espainiar ekonomiaren jarduera gogor astindu dute. Atzerakada horren arrazoi nagusietako bat barne eskariaren apaltze garrantzitsua izan da, hazkunderari hamarren bakar bat ekarri ziolako, aurreko hiruhilekoan puntu bat eta erdi ekarri ondoren. Hain zuzen ere, kontsumo pribatuak enpleguaren okertzea pairatu zuen, lehenengo aldiz 1994. urtetik atzera egin baitzuen urte arteko tasan, erabil daitekeen errenta gordinaren beste murrizketa bat eraginez. Konfiantza faltak ere kontsumo pribatua kaltetu zuen. Inbertsioak, berriz, bere portaera murriztailea areagotu zuen, hala ekipamendurako ondasunen alorrean nola, bereziki, eraikuntzaren esparruan. Alderdi

positiboena kontsumo publikoa izan zen, zikloaren aurkako joera erakutsi baitzuen eta azken urteetako batez besteko balioen gainetik hazi baitzen. Beste aldetik, kanpo eskariak bost hamarrenetan areagotu zuen BPGri eginiko ekarpena eta 0,8 puntu ekarri zizkion ekoizpenaren hazkundeari.

Eskaintzaren ikuspegitik, moteltzeko joera jarduera adar guztietara hedatu zen. Beherakada handienak industriari eta eraikuntzari egokitu zitzaizkien, inbertsioak erakutsitako bilakaerarekin bat eginda. Zerbitzuek nolabaiteko egonkortasuna erakutsi zuten ekonomiaren bilakaera txarraren aurrean, baina sei hamarren gutxitu zuten beren hazkunde tasa. Ekoizpenaren okertze bizkorrak oso eragin negatiboak izan zituen lan merkatuan. Enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %0,8 gutxitu zen, 150.000 lanpostu garbi desagerrararaziz. Zerbitzuetako adarretan izan ezik, arlo guztietan galdu ziren lanpostuak.

ESTATUKO TAULA MAKROEKONOMIKOA

5. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007		2008		
			III	IV	I	II	III
Azken kontsumoko gastua	4,1	3,8	3,5	3,3	2,5	2,0	1,5
- Familien gastua	3,9	3,4	3,0	2,9	2,1	1,1	0,1
- Administrazioaren gastua	4,6	4,9	4,8	4,4	3,6	4,9	5,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	7,1	5,3	4,6	4,5	2,8	-0,2	-3,2
- Ekipamendurako ondasunak	10,2	10,0	8,5	7,1	5,7	2,2	-0,6
- Eraikuntza	5,9	3,8	3,3	2,9	0,4	-2,3	-6,4
- Bestelako ekoizkinak	7,1	3,9	3,6	6,0	6,6	3,7	3,5
- Izakinen aldakuntza (*)	0,2	-0,1	-0,1	0,0	0,1	0,0	-0,1
Nazio eskaria (*)	5,3	4,4	3,9	3,8	2,8	1,5	0,1
Esportazioak	6,7	4,9	8,2	4,0	4,4	4,2	1,5
Inportazioak	10,3	6,2	7,6	4,9	4,0	2,4	-1,1
BPG (m.p.)	3,9	3,7	3,6	3,3	2,6	1,8	0,9
Nekazaritza eta arrantza	2,5	3,0	2,8	2,1	2,7	1,9	0,6
Energia	-0,1	0,8	0,2	1,7	1,8	4,4	2,9
Industria	1,9	2,8	2,9	1,0	-0,1	-2,7	-3,4
Eraikuntza	5,0	3,5	3,1	2,8	1,5	-2,1	-5,0
Zerbitzuak	4,4	4,6	4,3	4,8	3,9	3,6	3,0
Produktuen gaineko zerga garbiak	3,7	0,7	1,5	-1,5	0,1	-0,1	-0,2
GOGORATZEKOAK:							
- Kontsumoko prezioen indizea	3,5	2,8	2,4	4,0	4,4	4,6	4,9
- Enplegua (**)	3,2	2,9	2,8	2,2	1,4	0,4	-0,8

(*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena (**). Lanaldi osoko lanpostu baliokideak.
Iturria: Espainiako Estatistika Erakundea (INE).

Prezioen bilakaerari dagokionez, uztailean eta abuztuan kontsumo prezioek izan zuten gorakada garrantzitsuaren ondoren (KPI indizea %5,0aren gainetik kokatu zen), adierazle horrek bere igoerak apaldu zituen eta urte amaieran %1,4an kokatua zen, azken hamar urteko tasarik txikiena baita. Azkenik, administrazio publikoek 13.567 milioi euroko defizita pilatu zuten iraila arte, BPGren %1,24, familiei eta enpresei araudiaren aldaketen eta zerga jaitsieren bitartez likidezia eman zitzaielako. Eraitza horrek agerian uzten du Espainiako ekonomia nozitzen ari den moteltzeko joera bizia, 2007ko epe berean lortutako 12.253 milioi euroko superabit hartatik guztiz aldentuta.

Ekoizpena eta eskaria

2008ko hirugarren hiruhilekoan, Eustatek argitaratu dituen urterokotasunaren eta egutegiaren eraginik gabeko datuen arabera, EAEko barne produktu gordinaren hazkundea %1,9 izan zen urte arteko tasan neurtuta, aurreko hiruhilekoan jasotakoa baino zazpi hamarren gutxiago delarik. Beraz, EAEko ekonomiak 2007ko hasieran hartu zuen moteltzeko joera areagotu egin da. Ekonomiaren zikloa agortu izana aipatutako moteltze horren atzean dauden arrazoietakoa bat da. Beste aldetik, enplegua sortzeko ahalmena murriztu da azken hilabeteetan eta, gainontzeko elementuekin batera, konfiantza galera kezagarria eragin du, kontsumitzaileen artean bereziki.

Eskaintzaren analisisan, hazkundea areagotu zuen ekoizpen arlo bakarra lehen arloa izan zen. Zerbitzuek hazkunde sendoa lortu zuten, EAEko ekonomiaren jardura adar dinamikoena dela agerian utziz. Industriak moteltzeko joera arina izan zuen bere gehikuntza erritmoan, baina eraikuntzak jaso zuen beherakada garrantzitsua urte arteko hazkunde tasan, lehenengoa hamaika urtean, higiezinaren krisiari lotuta.

Azpiarratzekoa da barne eskariak nozitu duen narriadura, urte arteko tasan %1,8ko hazkundea lortuta. Kanpo saldoak, berriz, ez zion inolako ekarpenik egin BPGren hazkundeari. Familien azken kontsumoan eginiko gastuaren moteltzea lan merkatuaren bilakaera txarraren eta etorkizunari buruzko igurikimen ezkorren ondorio zuzena da. Beste aldetik, administrazio publikoetako kontsumoa gehiago hazi zen, zikloaren aurkako portaera bat erakutsiz. Kapital eraketa gordina izan zen murrizketa handiena jaso zuen osagaia, ekipamendurako ondasunen inbertsioak eta, bereziki, etxebizitzaren arloak izan zuten narriaduraren ondorioz.

EAE-KO TAULA MAKROEKONOMIKOA

6. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007		2008		
			III	IV	I	II	III
Barneko azken kontsumoa	3,8	3,8	3,8	3,7	2,9	2,2	1,7
- Familien gastua kontsumoan	3,7	3,4	3,2	3,0	2,4	1,4	0,9
- Herri admin. gastua kontsumoan	4,3	5,5	6,3	6,4	5,1	5,6	5,1
Kapital eraketa gordina	5,9	5,5	5,4	4,0	3,1	3,2	2,0
Barne eskaria	4,4	4,4	4,4	3,9	3,0	2,5	1,8
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,2	-0,5	-0,7	-0,3	-0,1	0,0	0,0
Esportazioak	6,2	7,6	8,6	7,1	6,9	9,0	5,9
Inportazioak	6,1	7,6	8,9	7,2	6,6	8,2	5,7
BPG (m.p.)	4,4	4,1	4,0	3,8	3,1	2,6	1,9
Lehen arloa	-4,4	9,8	-0,2	14,9	5,3	-0,2	2,2
Industria	4,2	4,0	3,9	2,2	1,8	1,4	1,0
Eraikuntza	4,2	4,6	4,9	3,3	2,4	1,1	-1,0
Zerbitzuak	4,5	4,2	4,1	4,6	3,6	3,4	2,8
Balio erantsi gordina	4,3	4,2	4,0	3,9	3,0	2,6	1,9
Ekoizkinen zerga garbiak	4,8	3,4	3,8	3,1	3,5	3,1	1,9


Iturria: Eustat, urterokotasunaren eta egutegiaren eraginak zuzendutako serieak.

Ekoizpen jarduera


Eskaintzaren ikuspegitik, EAEko ekonomiaren ekoizpen arlo guztiek, salbuespen bakarra eraikuntza izan zelarik, ekarpen positiboak egin zizkieten balio erantsiaren hazkundeari. Oro har, balio erantsi gordinak 2007. urteko lehen seihilekoan hasi zen moteltzeko joera noizten jarraitu du.

Nekazaritzako eta arrantzako adarrek bilakaera positibo txikia erakutsi zuten, %2,2ko urte arteko hazkunde tasa lortuta. Industriak apaltzeko joerari jarraipena eman zion eta %1 baino ez zuen areagotu bere balio erantsi gordina, aurreko hiru hilabeteetan lortutako emaitza baino lau hamarren txikiagoa baita. Industria produkzioaren indizeak apaltze garrantzitsua izan du eta jaitsiera garrantzitsua aurreratzen du Araba, Bizkai eta Gipuzkoako industriarentzat. Uztailetik irailera bitartean, energiak eta, neurri txikiagoan, ekipamendurako ondasunek portaera hedakorra erakutsi zuten, baina bitarteko eta kontsumorako ondasunen ekoizpenak behera egin zuen, bereziki kontsumo iraunkorreko ondasunen atalak.


Industria




IPI (ziklo-joera)




Eraikuntza




Zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak



Merkatuko zerbitzuak ez direnak



Iturria: Eustat.

Jarduera adarren arabera, urte arteko aldakuntza tasa positiboak lortu zituzten adarrak energia elektrikoa, gasa eta ura, petrolioaren fintzea, material elektrikoa eta garraio materiala, metalurgia eta artikulua metalikoak izan ziren. Gainontzeko adarrek narriadura garrantzitsua erakutsi zuten eta, horren ondorioz, industriak ekonomiaren balio erantsi gordinari egin zion ekarpena txikiagoa izan zen.

JARDUERAREN ADIERAZLEAK

7. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007		2008		
			III	IV	I	II	III
Industria							
Balio erantsi gordina	4,2	4,0	3,9	2,2	1,8	1,4	1,0
Industria produkzioaren indizea (*)	5,0	3,8	3,3	1,6	-0,4	-1,8	-2,0
Industria giroaren indizea	-3,9	3,1	4,4	1,5	-2,6	-5,0	-13,1
Ekoiizteko ahalmenaren erabilera (%)	80,6	82,1	84,5	82,0	84,0	83,8	81,0
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	0,5	3,3	3,2	2,6	0,6	0,2	-0,2
Eraikuntza							
Balio erantsi gordina	4,2	4,6	4,9	3,3	2,4	1,1	-1,0
Eskainitako etxebizitzak	12,5	14,1	14,1	22,1	34,7	36,1	---
Obra berriko baimenak	1,8	4,6	8,0	0,0	-46,1	-36,7	---
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	3,4	1,1	0,7	0,3	0,2	-0,8	-3,8
Zerbitzuak							
Balio erantsi gordina	4,5	4,2	4,1	4,6	3,6	3,4	2,8
Hegazkinen bidezko trafikoa	4,4	11,1	13,2	9,7	11,9	-3,8	-10,8
Hoteletan igarotako gualdiak	11,3	3,0	0,0	-0,6	8,6	-8,8	-5,8
Hoteletako okupazioa	47,9	46,6	58,4	43,3	38,5	45,1	53,5
Enplegua (hiruhileko kontabilitatea)	3,1	3,2	3,0	3,2	2,3	1,8	1,6
Enplegua (barne merkataritza indizea)	1,9	2,7	2,6	3,2	1,3	0,8	0,4

(*) Ziklo-joera seriea.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerio, Eustan, INE, Oficemen eta Hegazkineria Zibilerako Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak egiten duen enpresen iritzien gaineko inkestak industria giroaren gaiztotzea agerian utzi zuen, eskari zorroz eta ekoizpenaz dituzten igurikimenen okertzearen ondorioz. Industria giroaren indizea 8,1 puntu jaitsi zen hirugarren hiruhilekoan, uztailan eta, bereziki, irailean jasotako beherakaden ondorioz. Azken hilabete horretan jaso zen urteko daturik txikiena, ezagunak diren hilabeteen artean. Ezkertasuna industriaren atal guztietan agertu zen, baina bereziki bitarteko eta kontsumorako ondasunetan.

Bi adar horietan, eskari zorroz eta ekoizpenaren joeraz adierazi dituzten iritziak nabarmen okertu dira.

Hirugarren hiruhilekoan emaitza txarrean jaso zuen arlo ekonomikoa eraikuntza izan zen, sektore horretako balio erantsi gordina %-1 murriztu baitzen urte arteko aldakuntza tasan. Higiezinaren zikloa bat-bateko amaiera batekin itxi da. Dagoen eskaria ez da nahiko gehiegizko eskaintza bat berdintzeko eta arloaren beherakada bizia eragin du. Eskura dauden adierazleek eraikuntzaren moteltze hori iragartzen dute. Hala etxebizitza berriak eraikitzeko bisatuek nola hasitako etxebizitzaren kopurua beherantz egokitu dituzten merkatuak, eroslerik aurkitzen ez duten etxebizitzaren kopurua altuegia delako. Salmenten kopurua ere norabide beretik doa, hiruhilekoaz hiruhileko apaltzeko joera areagotzen baita. Familiek konfiantza galdu dute, kreditu bat lortzea zailagoa da eta lan merkatuaren gainean mehatxuak agertu dira. Horrek guztiak etxegintzaren arloa kaltetu du.

Zerbitzuetako jarduerak, guztira, %2,8 areagotu zuten hazkundearen urte arteko aldakuntza tasan neurtuta, aurreko hiruhilabetekoa baino sei hamarren txikiagoa baita. Merkaturatzen diren zerbitzuak %2,3 hazi ziren eta merkatutik kanpo ematen direnak, berriz, %5,6. Bilakaera positibo hori sektorearen adar nagusi gehienaren portaera onari esker lortu da eta, horren ondorioz, gaur egun EAEko ekonomiaren jardura adar dinamikoena dela agerian utzi du.

Hala eta guztiz ere, merkataritzaren, turismoaren eta garraioaren bilakaeraz eskura dauden abaguneko azken adierazleek moteltzeko zantzu garbiak erakusten dituzte. Hain zuzen ere, Eustatek egiten duen barne merkataritzako indizeak, handizkako merkataritzaren atalean, beherakada garrantzitsua adierazi zuen makineriarekin eta ekipamenduarekin zerikusia duten ekoizkimen salmentan. Aitzitik, ekoizkimen espezializatuen txikizkako salmenten bilakaerak, zehazkiago adierazita, pertsonaren ekipamendurako atalean, neurri batean konpentsatu zituen galera orokorrak. Turismoari dagokionez, hotelei eta antzeko establezimenduei eginiko inkestaren emaitzek hazkunde erritmoa moteldu dela adierazten dute. Hain zuzen ere, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako hotelen betetze maila %53,5era iritsi zen hirugarren hiruhilekoan, hots, azken zazpi urteetako betetze mailarik txikiena. Aireko trafikoa ere zerbitzuetako hazkunde apalagoarekin bat egin zuen, zeren eta Hegazkineria Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren datuen arabera, uztaila eta iraila bitartean urte arteko batez besteko hazkundearen zazpi puntuko murrizketa izan baitzuen eta %-10,8an kokatu. Azkenik, zerbitzuek sortu duten enplegua aztertzen duten estatistika guztiek mezu berdintsua iragartzen dute jardura adar horren hazkunde txikiagoaz.

Eskariaren osagaiak

Eskariaren ikuspegitik, BPGren hazkundera barne eskarian bakarrik oinarritu da, kanpo arloak ez baitzion inolako ekarpenik egin gehikuntza tasari. Barne eskariaren hazkundera zazpi hamarren moteldu zen 2008ko uztailaren eta irailaren artean, bereziki kontsumo pribatuaren gastua nozitzen ari den moteltze garrantzitsuaren ondorioz. Administrazio publikoetako kontsumoa familien kontsumoaren ahultzea konpentsatzen ahalegindu zen eta hazkunde tasa garrantzitsuak jaso zituen. Era berean, kapital eraketa gordina gutxiago hazi zen hirugarren hiruhilekoan, bere osagaiak indarra galdu zutelako.


EAEko familien kontsumoak, gutxi gorabehera BPGren %60 baita, %0,9ko hazkunde txikia jaso zuen. Lan merkatuak hasi berri duen narriadurak eta finantza sistemez hedatu den ziurgabetasunak nabarmen murriztu dute kontsumitzaileen konfiantza. Familiek zuhurtziazko aurrezkiaren alde jo dute eta beraientzat guztiz beharrezkoak ez diren gastuak ez egitea erabaki dute. Azken hilabeteetan, kontsumoa neurtzen duten adierazle guztiek, neurri handiagoan edo txikiagoan, hazkunde gutxitzeko zantzuak erakusten dituzte. Adibide garbia da automobilen matrikulazioak 2008. urte osoan zehar, baina bereziki urteko bigarren erdian, jaso zuen bat-bateko beherakada. Norabide berean, kontsumorako ondasunen industria ekoizpenaren hazkundeak oso tasa negatiboak jaso zituela estimatu da. Merkataritzako adierazleak ere ez dira salbuespen bat izan eta gehikuntza tasa galgatzeko joera erakusten dute. Kontsumoaren jaitsiera orokorra da, baina are gehiago hauteman da elikagaiak ez diren ekoizkinen artean. Elikagaien dagokienez, produktu freskoen salmentak gutxitu dira eta familiek gero eta gehiago elikagai merkeagoak aukeratzen dutela agerian geratu da. Prezioen bat-bateko jaitsierak eta horri esker lortu den erosteko ahalmen igoerak ez dirudi inolako eraginik izan dutenik kontsumo pribatuan.

Beste alde batean, administrazio publikoen kontsumoak aurreko hiruhilabeteetako bilakaera bezalakoa erakutsi zuen hirugarren hiruhilekoan ere, urte arteko aldakuntza tasa %5,1ean kokatuta, barne eskariaren osagaien hazkunde handiena delarik. Arlo publikoaren helburua ekonomia suspertzea da, eragile pribatuek kontsumo eta inbertsio proiektuak aurrera ateratzeko zailtasunak dituzten testuinguru batean. Kapitaleko eraketa gordina ere bat dator EAEko ekonomiaren egoera orokorrarekin. Urteko hirugarren hiruhilekoan lortu zuen hazkundea %2,0an geratu zen, 1993. urtetik inoiz jaso den baxuena baita. Eraikuntzan eginiko inbertsioa hasi da aldakuntza tasa negatiboak jasotzen eta ekipamendurako ondasunetan eginiko inbertsioa ez da gai izan beste atalaren narriadura garrantzitsua konpentsatzeko. Ondasun horietako ekoizpenak eta inportazioek moteltzeko joera orokorra iradokitzen dute uztailaren eta irailaren arteko epealdirako. Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioak ere hazkunde tasa negatibotan kokatu ziren, automobilgintzaren adarrak bizi duen une txarra agerian utziz.


Eskariaren osagaien bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

6. irudia


Kontsumo pribatua




Kontsumo publikoa




Kapital eraketa gordina




Barne eskaria



Esportazioak



Inportazioak



Iturria: Eustat.

BARNE ESKARIAREN ADIERAZLEAK

8. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007		2008		
			III	IV	I	II	III
Kontsumo pribatua							
Hiruhilekako kontuen estimazioa	3,7	3,4	3,2	3,0	2,4	1,4	0,9
BMI txikizkaria	2,0	1,5	1,7	0,3	-1,4	-2,2	0,2
Azalera handiko merkataritza indizea(*)	1,7	-0,7	-1,1	-2,4	-3,7	-4,5	-4,9
Landunak txikizkarian	2,1	2,7	2,7	2,9	1,0	0,7	0,3
Automobilen matrikulazioa (*)	-2,1	-0,9	1,9	3,0	-15,5	-16,6	-26,0
Kontsumitzaileen konfiantza indizea	96,3	96,0	96,0	88,0	92,0	80,0	75,0
Kapital eraketa gordina							
Hiruhilekako kontuen estimazioa	5,9	5,5	5,4	4,0	3,1	3,2	2,0
IPI ekipamendua EAE (*)	8,2	7,4	6,5	3,3	1,0	0,7	0,4
IPI ekipamendua Estatua (*)	7,9	5,9	5,6	3,6	1,4	-0,6	-2,8
Ekipo ondasunen inportazio nominalak	6,1	18,4	16,6	31,0	18,9	22,5	-8,2
Zama ibilgailuen matrikulazioa (*)	-2,5	0,0	-0,9	-1,5	-30,0	-34,2	-41,6

(*) Ziklo-joera seriea.


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazio eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Oro har, EAEko enpresek adierazten dute etorkizunari buruz duten igurikimenak okerragoak direla. Aurrez adostutako zenbait eskaera bertan behera geratu izana, ordaintzen ez duten bezeroak gehiago izatea eta finantzazioa lortzeko zailtasunak oso kezagarriak dira enpresarientzat. Finantza sisteman gaur egun dagoen likidezia faltak inbertsio berriak abiaraztea eta aurreko egitasmoak sendotzea izugarri zailago egiten du, eta horrek eragin erabatekoa du ekonomiak lanpostuak sortzeko duen ahalmenean.


Kanpo saldoa eta lehiakortasuna

AEBetan sortu den finantza krisiak, eta ekonomia nagusien jarduera mailan izan duen eraginak, ekoizkinen eta lehengaien eskari apalagoa eta nazioarteko kreditua garestiagoa ekarri ditu berarekin. Horregatik guztiarengatik, nazioarteko merkataritzak aurreko epealdietan baino bilakaera motelagoa erakutsi zuen.


ELGE




Europar Batasuna



AEB



Japonia



Iturria: ELGE, Eurostat, AEBetako Merkataritza Saila eta Japoniako Finantza Ministerioa.

Mundu mailako krisiak bere eragina utzi zuen salmenten bilakaeran eta ekonomia eremu gehienetan emaitza onak jaso zituzten arren, guztietan hauteman zen beheranzko joera bat. Txina esportatzaile nagusietako bat izan zen berriro, garapen bidean dauden herrialdeen eskari sendoari esker eta, neurri txikiagoan, Europar Batasunaren eta AEBen bultzada inportatzaileari esker. Hala eta guztiz ere, munduko ekonomiaren hazkundera moteldu izanak eta barne eskarien ahultzeak Txinako eta gainontzeko merkatuetako kanpo merkataritzari ere kalte egin diote. Izan ere, eta lehen aldiz 2001. urtetik, azaroan Txinako esportazioak %2,2 jaitsi ziren aurreko urteko epe beraren aldean.

Mundu mailan ikusten den eszenategia oso baikorra ez den arren, EAEko ekonomiak ez du, oraingoz, aldaketa handirik hauteman bere produktuen eskarietan. Are gehiago, urteko hirugarren hiruhilekoan, atzerrira bideratutako esportazio guztiak %13,8 areagotu ziren termino nominaletan. Gehikuntza tasa hori aurreko hiruhilabetekoa baino zertxobait txikiagoa izan zen arren, azken urteetako emaitzen ildotik dago. Inportazioek, ordea, joera biziagoa erakutsi zuten eta %20,0 hazi ziren, 2005. urte hasieratik gehikuntza handiena lortuta. Aldakuntza horien ondorioz, urteko hirugarren hiruhilekoak 414 milioi euroko defizita utzi zuen, aurreko hiruhilabeteko superabitaren ondoren.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ATZERRIAN

9. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-III
	2006	2007	2007		2008			
			III	IV	I	II	III	
Guztira	16,4	12,8	12,0	13,6	5,0	19,6	13,8	4.940.252
Ez-energetikoak	14,1	13,4	11,9	13,5	3,1	16,2	14,6	4.478.434
Ekoizkin energetikoak	51,4	6,4	13,1	14,2	28,5	61,3	6,0	461.818

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2007koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

ONDASUNEN INPORTAZIOAK ATZERRITIK

10. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila € 2008-III
	2006	2007	2007		2008			
			III	IV	I	II	III	
Guztira	20,2	9,4	5,9	13,6	18,5	16,5	20,0	5.353.901
Ez-energetikoak	14,6	17,1	15,2	12,2	7,1	4,9	6,4	3.242.078
Ekoizkin energetikoak	32,9	-5,2	-9,9	17,0	49,0	42,9	49,3	2.111.823

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2007koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Energiaren salerosketak kontuan hartu gabe, esportazioak %14,6 igo ziren. Esportazioen gutzitza bezala, hauek ere aurreko hiruhilekoan baino apur bat gutxiago hazi ziren, baina azken bi urteetako emaitzarik gorenetan daude. Energiaz bestelako inportazioek, berriz, goranzko joera bat hartu zuten, baina salmenten maila iritsi gabe, eta jaso ohi zuten


erritmoaren oso azpitik. Beste aldetik, energiaz bestelako saldoak superabita lortu zuen beste hiruhileko batez, eta 1.263 milioi eurora iritsi zen, serie hau hasi zenetik inoiz jaso den bigarren emaitzarik altuena delarik.

Hala eta guztiz ere, Araba, Bizkai eta Gipuzkoako enpresariak eskari zorroz eman dituzten iritziek azken hilabeteetako emaitzarik txarrenak bildu dituzte. Izan ere, EAEko esportazioek Europako herrialde nagusi askotan dagoeneko nozitzen duten moteltzea saihestu dute aurrez adostutako eskariei esker, baina etorkizunean egingo diren salmentek ez dute baikortasunik iradokitzen. Hain zuzen ere, 2008ko amaierarako eta, bereziki, 2009. urteko lehen sei hilabeterako hainbat adarrek nabarmen gutxitu dute beren eskarien maila, bereziki automobilgintzarekin, altzairuarekin, ingurumenarekin, etxeko elektratresnekin eta papergintzarekin zerikusia dutenek. Adar horietako batzuek dagoeneko %40 arteko beherakadak jaso dituzte 2007. urtean izandako mailen aldean. Kezka nagusia barne merkatuak sortzen du.


EAEko industriaren eskari zorroa(*)

8. irudia

Industria giroaren indizea



Eskari zorroa guztira



(*) Enpresarien erantzunen saldo garbia (muturretako ehunekoen arteko aldea).
Iturria: Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerioa.

Esportazioak ekoizkin motaren arabera aztertuta, sektoreen ibilbidean joera aldaketa batzuk hautematen dira. Metal arruntak eta beren manufakturek, salmenten atal nagusia baita, bizitasun handiari atxiki zioten eta 2007ko amaieran izan zuen beherakada garrantzitsuen ondoren aurreko hiruhilekoan lortu zuen hazkundera sendotu zuen. Igoera horren atzean,

burdina eta altzairuko galdaketen eta berauen manufakturen salmenten hazkundera dago. Hala ere, berrikuntza bigarren talde handienaren eskutik iritsi zen, ekipamendurako ondasunen eskutik, alegia, aurreko urteetan lortutako hazkunde sendoei ezin eutsirik, nabarmen gutxitu zuen bere emaitza. Atal honen beherakada garrantzitsuen arrazoiak garraio materialaren jaitsiera handia, bereziki automobilena, %2ko gehikuntza tasa apala aurkeztu baitzuten, eta, neurri txikiagoan, makinak eta tresnak atalaren moteltzea izan ziren. Beste aldetik, energiaren arloak tamaina handiko apaltzea jaso zuen bere balioan, neurri handian erregaiei salneurriaren merkatzearengatik. Gainontzeko atalek bilakaera egonkorragoa erakutsi zuten. Arlo kimikoak berriro egin zuen gora, aurreko hiruhilabeteko beherakadaren ondoren. Kautxuak eta plastikoak ere hazkunde tasa positiboa jaso zuen, baina talde honek azken urtean izan dituen etengabeko gorakadek eta beherakadek ezinezko egiten dute susperraldi sakona izango ote duten aurreikustea.

ONDASUNEN ESPORTAZIOAK ATZERRIAN

11. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila €
	2006	2007	2007		2008			2008-III
			III	IV	I	II	III	
Guztira	16,4	12,8	12,0	13,6	5,0	19,6	13,8	4.940.252
Nekazaritzakoak	10,2	18,6	7,2	28,7	8,5	5,6	23,4	168.481
Energia ekoizkinak	51,4	6,4	13,1	14,2	28,5	61,3	6,0	461.818
Kimikoak	0,1	-6,2	-1,1	-16,8	14,2	0,9	7,7	102.491
Kautxua eta plastikoa	40,5	6,4	7,5	-10,2	1,3	-5,6	11,6	362.048
Papera	5,5	11,2	10,8	7,9	3,1	0,4	-1,1	121.749
Metalak eta manufakturak	17,4	18,6	18,0	10,9	-1,0	27,2	41,2	1.584.882
Ekipamendu ondasunak	10,3	12,4	9,7	21,8	6,3	17,8	1,3	1.863.052
- Makinak eta tresnak	10,6	13,1	13,3	19,5	9,5	22,1	9,7	1.004.151
- Garraio materiala	10,0	11,8	6,4	24,0	3,6	13,8	-7,0	858.901
Bestelako manufakturak	13,4	14,2	13,5	4,2	-0,8	-1,1	6,9	240.141
Sailkatu gabeak	14,5	12,9	41,1	27,8	-28,4	-9,9	-14,9	35.589

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2007koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

EAEko barne eskariak bizitasuna galdu zuen arren, inportazioen balio nominalak 2006. urteko hasieratik inoiz izan duen igoerarik handiena jaso zuen. Energiaren hazkunde sendoa, gutxi gorabehera inportazio guztien %40 biltzen baititu, eta metal arruntak eta beren manufakturak ataleko susperraldi sendoa izan ziren inportazioen bilakaeran azpimarratu behar diren gertakari nagusiak. Aitzitik, ekipamendurako ondasunak izan ziren kalte handiena nozitu zutenak.

Garraio materialak ezustekoa eman zuen, beherakada nabarmena jaso zuelako, azken urteko hiruhilabete guztietan bi zenbakiko tasetan hazi zen bitartean. Neurri txikiagoan, makinak eta tresnak taldeko geldotasuna ere azpimarratu behar da. Horiekin batera, papergintzak behera egin zuen bigarren hiruhilekoz jarraian eta kautxua eta plastikoa biltzen dituen atalak ere kalteak jaso zituen eta lehen aldiz 2002. urtetik aldakuntza tasa negatiboak jaso zituen.

ONDASUNEN INPORTAZIOAK ATZERRITIK

12. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila €
	2006	2007	2007		2008			2008-III
			III	IV	I	II	III	
Guztira	20,2	9,4	5,9	13,6	18,5	16,5	20,0	5.353.901
Nekazaritzakoak	-0,1	5,0	5,1	10,5	11,5	2,6	16,5	236.801
Energia ekoizkinak	32,9	-5,2	-9,9	17,0	49,0	42,9	49,3	2.111.823
Kimikoak	20,2	-1,8	10,5	-5,8	12,2	49,3	22,9	160.936
Kautxua eta plastikoa	23,2	17,6	13,9	11,1	2,7	6,6	-3,7	200.159
Papera	11,3	9,7	11,7	12,1	0,5	-6,7	-8,2	89.202
Metalak eta manufakturak	27,1	21,6	17,7	-2,2	-0,3	-5,3	20,5	1.447.760
Ekipamendu ondasunak	6,1	18,4	16,6	31,0	18,9	22,5	-8,2	826.424
- Makinak eta tresnak	12,6	9,9	14,8	-4,1	5,3	9,0	1,3	624.678
- Garraio materiala	-5,4	35,8	20,7	112,2	44,7	53,5	-28,7	201.746
Bestelako manufakturak	9,0	15,4	13,6	15,4	-1,8	-11,3	-8,6	275.542
Sailkatu gabeak	-52,1	-9,8	0,3	6,8	32,5	34,2	29,0	5.254

Oharra: Hiruhilabeteko datuak eta 2007koak behin-behinekoak dira.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Ikuspegi geografiko batetik, energiaz bestelako esportazioek ez zuten aldaketa handirik erakutsi aurreko hiruhilekoan izan zuten joeraren aldean. Eremu guztietan hazkunde positiboak eta sendoak lortu ziren eta gehienak, Europar Batasuneko kide berrietan eta Europar Batasunaren multzoan izan ezik, igoerak bi zenbakikoak izan ziren. Beste hiruhileko batez, europar herrialdeetan saldutakoak merkataritza bultzatu zuen. Hain zuzen ere, Europar Batasunera zuzendutako esportazio ez-energetikoak %9,6 areagotu ziren. Azpimarratzekoa da Frantzia saldutakoa, 2000. urtetik izan duen gehikuntza tasa handienetakoa lortuta. Alemanian saldutakoa ere hazi zen, baina nolabaiteko moteltzea erakutsi zuen aurreko hiruhilabeteko erritmoaren aldean. Alde txarrean, Erresuma Batua agertzen da, bertan eginiko salmentak berriro gutxitu zirelako. Dagoeneko hiru urtetik gora igaro dira EAEko produktuak britainiar merkatuan bere tokia lortu ezinik dabilzala.

Euroak hirugarren hiruhilekoan izan zuen balio galerak mesedea egin zion lehiakortasunari, AEBetara eta Japoniara bidalitako esportazioen bilakaeran hauteman daitekeenez. Bi lurralde horietan saldutakoak gorakada garrantzitsuak lortu zituen. ELGE osatzen duten herrialdeetatik kanpo, ekonomia nagusiek hazkunde erritmoa moteldu zuten, baina oraindik oso sendoak izan ziren, bereziki Txinan eta Errusian. Bi herrialde horietako barne eskariak oraindik bizkor hazi ziren eta bi urteko epe laburrean Araba, Bizkai eta Gipuzkoako salmentak ekonomia horietan ia bikoiztu dira.

EAE-K ATZERRIAN SALDUTAKO ONDASUN EZ-ENERGETIKOEN HELBURUA

13. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila €
	2006	2007	2007		2008			2008-III
			III	IV	I	II	III	
Guztira	14,1	13,4	11,9	13,5	3,1	16,2	14,6	4.478.434
ELGE	14,6	9,9	7,2	6,2	0,3	14,2	10,2	3.465.601
Eurogunea	16,4	9,7	6,9	3,0	0,7	17,9	13,5	2.524.198
Europako kide berriak	26,5	23,0	17,1	27,8	26,6	8,7	3,8	214.972
Europar Batasuna 25	15,8	10,8	6,7	6,1	2,7	15,5	9,6	3.036.226
Frantzia	10,4	6,8	4,9	2,8	0,0	17,1	20,1	829.569
Alemania	23,5	13,9	2,5	10,0	-2,1	26,5	12,4	711.597
Erresuma Batua	3,4	13,5	-1,3	25,7	-1,3	1,4	-10,1	247.692
Italia	24,8	-2,7	-1,7	-11,0	-5,6	11,0	6,3	306.819
ELGEko besteak (1)	11,8	9,8	12,8	13,4	-3,4	5,7	10,5	644.347
AEB	16,3	-8,4	-4,0	-2,0	-16,0	12,1	45,6	197.224
Japonia	-28,3	-1,4	28,4	-42,5	47,7	14,8	76,9	20.188
ELGETik kanpokoak	12,0	30,9	36,8	46,8	17,2	25,5	33,1	1.012.833
Errusia	54,9	41,3	60,6	9,9	54,7	70,2	56,2	55.445
Txina	28,1	15,5	29,4	29,7	44,2	55,6	53,6	90.560
Brasil	-14,1	27,9	35,0	-11,4	16,4	17,4	4,7	75.117
Munduko besteak	12,1	32,7	36,5	59,5	11,8	20,0	33,2	791.711

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2007ko datuak behin-behinekoak dira. (1) ELGEkoak EB-15ak izan ezik.

Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Inportazioen atalean, antzeko joera hauteman zen. Ere nagusi guztietan erosketak lehen baino gehiago areagotu ziren, bereziki Europar Batasunean sartu berri diren herrialdeetan, %20tik gora igo baitziren. Hala ere, Alemaniak beherakada garrantzitsua izan zuen garraio materialaren salmentan, herrialde horretatik inportatzen diren produktuetatik pisu handiena duen osagaia baita. Erosketak txikiagoak izan ziren Italian ere eta, bereziki, Erresuma Batuan,

seigarren hiruhilekoz jarraian jaitsiera bat izan zuelako, gehien esportatzen dituen produktuak, metal arruntak eta beren manufakturak, gutxiago saldu zituelako.

Alde positiboenean, AEBetatik iritsitako inportazio ez-energetikoak kokatu ziren, euroaren eta dolarraren arteko truke tasak lagunduta. Errusiatik eta Brasiletik iritsi zirenek nabarmen areagotu ziren, aurreko hiruhilabeteko beherakada garrantzitsuaren ondoren. Txinan erositako ekoizkinak nabarmen gutxitu ziren, nahiz eta EAETik herrialde horretara esportatutakoaren hazkundera oso handia izan zen.

EAE-K ATZERRIAN EROSITAKO ONDASUN EZ-ENERGETIKOEN JATORRIA

14. TAULA

	Urte arteko aldakuntza tasak							Mila €
	2006	2007	2007		2008			2008-III
			III	IV	I	II	III	
Guztira	14,6	17,1	15,2	12,2	7,1	4,9	6,4	3.242.078
ELGE	11,4	16,8	12,7	18,0	7,7	6,2	4,2	2.274.941
Eurogunea	12,3	18,6	13,9	23,2	11,2	11,5	3,5	1.698.370
Europako kide berriak	27,3	21,6	15,0	14,4	2,9	15,8	23,5	104.749
Europar Batasuna 25	10,9	14,9	10,6	16,8	7,3	7,7	3,6	2.031.516
Frantzia	14,9	11,2	7,4	5,7	8,7	9,8	13,6	474.608
Alemania	3,3	38,4	28,4	82,3	30,8	27,1	-1,0	510.087
Erresuma Batua	2,6	-13,3	-13,6	-29,2	-24,0	-22,3	-12,3	164.126
Italia	9,6	18,2	19,2	6,9	0,1	-2,9	-10,6	262.476
ELGEko besteak (1)	17,5	32,7	29,1	25,2	9,5	-0,1	13,3	348.174
AEB	30,6	49,4	64,3	47,1	30,1	-5,4	16,9	101.713
Japonia	-1,3	7,5	19,8	-5,9	-3,4	1,8	-8,0	38.175
ELGETik kanpokoak	25,6	17,9	22,3	-5,1	5,3	1,2	12,1	967.137
Errusia	17,5	10,4	8,3	-10,8	11,0	-2,0	46,2	163.000
Txina	38,1	45,9	49,0	29,1	20,5	1,0	-13,3	290.239
Brasil	12,4	-14,5	33,8	-64,4	0,1	-21,7	25,1	55.038
Munduko besteak	24,0	8,9	8,0	-15,4	-5,0	5,1	23,1	458.860

Oharra: Hiruhilabeteko eta 2007ko datuak behin-behinekoak dira. (1) ELGEkoak EB-15ak izan ezik.
Iturria: Eustatek egina, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datuetan oinarrituta.

Lan merkatua

Ekonomia jarduerak izan zuen moteltze biziak bere ondorioak utzi zituen lan merkatuan hirugarren hiruhilekoan, eta enplegua aztertzen duten estatistika guztiek beheranzko joera garbia erakutsi zuten. Are okerragoa dena, arazoa ez dator eraikuntzaren beherakadatik bakarrik, orain arte bezala, gainontzeko jardueretan ere enpleguaren bilakaerak okerrera egin duela hauteman delako.

ENPLEGUAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

15. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007		2008		
			III	IV	I	II	III
Landunak (BJA inkesta)	1,4	1,1	1,1	0,3	1,0	1,9	0,1
Lanpostuak (hiruhilekako kontuak)	2,2	2,8	2,7	2,7	1,7	1,1	0,6
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,3	2,7	2,7	2,5	2,1	1,8	1,3
Langabeak (BJA inkesta)	-28,9	-19,7	-14,9	-8,5	-1,5	4,7	15,3
Langabeak (INEM)	-4,7	-6,4	-4,5	-2,6	2,3	8,5	10,2
Langabezia tasa (BJA inkesta)	%4,1	%3,3	%3,1	%3,1	%3,3	%3,5	%3,5

Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INEM.

Horiek horrela izanda, hiruhilabetekako kontuek, Gizarte Segurantzako afiliazioak eta BJA inkestak ahultasuneko zantzuak erakutsi zituzten. Azken estatistika horrek aurkeztu zuen bilakaera txarra, estimatu zuen enplegu maila aurreko urtean zegoen kopurutik oso gutxi aldendu delako, aldakuntza tasa %0,1 baino ez baita igo, hots, 1.300 langile gehiago zeuden bakarrik. Afiliazioa, berriz, gutxiago hazi arren, hazkunde tasa garrantzitsua (%1,3) lortu zuen berriro, nahiz eta Estatuarentzako datuek beherakada adierazten duten (%-0,9). Azkenik, hiruhilabetekako kontu ekonomikoek estimatu duten enpleguak tasa txikiagoa (%0,6) izan zuen eta dagoeneko sei hiruhilekoz jarraian erritmoa moteldu du.


Kontuetan egiten den ekonomiaren arloen arteko enplegu banaketak agerian uzten du sektore guztiek lanpostuak galdu dituztela, zerbitzuek izan ezik, nahiz eta azken hauek ere gehikuntza tasak murriztu dituzten. Eraikuntzan jaso zuen bilakaera okerrera, etxebizitzetan eginiko inbertsioaren egoera txarrak zuzenean kaltetuta. Sektore horren jarduerak behera egin zuen, eta urtea aurrera egiten zuen heinean, jaitsiera gero eta handiagoa izan zen, etxebizitzak erosteko erabakiak bertan behera geratzen zirelako eta finantzaziorako baldintzak gogortzen zirelako. Industria ere kaltetuta atera da motelalditik eta lanpostuak galdu zituen (%-0,2),

lehenengo aldiz 2006ko bigarren hiruhilekotik. Azkenik, zerbitzuek enplegua sortzeko orduan arlo sendoena direla berriro frogatu zuten, baina lortu zuten aldakuntza tasa (%1,6) duela urtebete bat izandakoaren erdia da.


Enplegu estatistiken bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

9. irudia


Kontu ekonomikoak




Afiliazioa



BJA



BAI



Iturria: Eustat, Gizarte Segurantza eta INE.

Oro har, enpleguaren estatistiketan hauteman den moteltzea eta BPGren bilakaerak izan duena antzekoak dira. Beraz, ekoizkortasunaren irabaziak ez dira asko alendu aurreko epealdietan lortutakoetatik. Azpimarratzekoak dira eraikuntzan lortutako irabaziak, beste arloak baino lanpostu gehiago galtzen ari delako. Industriak eta zerbitzuek, berriz, tasa txikiagoak lortu

zituzten. Industriari dagokionez, azken hiruhilekoetan izan dituzten ekoizkortasun irabaziaz ez dira oso handiak izan sektoreak lortu ohi dituen datuekin alderatuta. Ekoizpenerako inbertsioak erakusten duen geldotasuna eta langileen kopuruari eusteko erabakia egon daitezke emaitza horien atzean.

ENPLEGUA ETA EKOIZKORTASUN IRABAZIAK EKONOMIAREN ARLOETAN

16. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007		2008		
			III	IV	I	II	III
Enplegua guztira	2,2	2,8	2,7	2,7	1,7	1,1	0,6
<i>Ekoizkortasuna guztira</i>	2,1	1,3	1,3	1,1	1,4	1,5	1,3
Enplegua lehen arloan	-3,5	-4,0	-3,6	0,0	2,9	3,4	-0,3
<i>Ekoizkortasuna lehen arloan</i>	-0,9	14,4	3,5	14,8	2,3	-3,5	2,5
Enplegua industrian	0,5	3,3	3,2	2,6	0,6	0,2	-0,2
<i>Ekoizkortasuna industrian</i>	3,7	0,7	0,6	-0,4	1,3	1,3	1,2
Enplegua eraikuntzan	3,4	1,1	0,7	0,3	0,2	-0,8	-3,8
<i>Ekoizkortasuna eraikuntzan</i>	0,8	3,5	4,2	3,0	2,3	1,9	2,9
Enplegua zerbitzuetan	3,1	3,2	3,0	3,2	2,3	1,8	1,6
<i>Ekoizkortasuna zerbitzuetan</i>	1,4	1,0	1,0	1,4	1,3	1,6	1,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

BJA inkestak argitaratu dituen datuen arabera, enplegu tasa bi hamarren bakarrik igo zen azken urtean (%67,7tik %67,9ra). Horri gehitzen bazaio 2009. urterako aurreikuspen ekonomikoek adierazten dutela enplegua galtzeko arriskua dagoela, Lisboako estrategian enplegurako ezarri ziren helburuak lortzea zailagoa ematen du orain. Oraingoz, enplegu sorrera apalagoa gizonen kolektibora mugatu da, zeren eta gizon landunen kopurua %-1,9 gutxitu zen bitartean, lana zuten emakumeen kopurua %3 igo zen epealdi berean, 12.000 lanpostu berri sortuta. Beraz, enplegu tasa orokorrarentzat ezarri zen helburua lortzen ez den arren, litekeena da emakumeentzako enplegu tasaren helburua betetzea. Halaber, gero eta zailagoa izango da 55 eta 64 urte bitarteko biztanleen enplegu tasa %50era igotzeko helburua betetzea, tasa hori %41aren eta %42ren artean kokatuta baitago 2005. urtetik.

Lanpostu bat eskatzen dutenen kopurua %0,6 hazi zen urte arteko aldakuntza tasan, 16 urtetik gorako biztanleen igoera (%0,2) baino zertxobait gehiago. Oso bestelakoak dira sexu bateko eta besteko bilakaerak, eta emakume parte hartzaileak %3,2 areagotu diren bitartean, gizonen kopurua %-1,3 murriztu da. Hori dela eta, emakumeen partaidetza tasa puntu bat eta lau

hamarren igo zen urte arteko tasan, iazko hirugarren hiruhilekoko %44,8tik 2008ko hiruhileko berean markatutako %46,2ra igarota.

PARTAIDETZA, ENPLEGU ETA LANGABEZIA TASEN BILAKAERA

17. TAULA

Ehunekoak

	2006	2007	2007		2008		
			III	IV	I	II	III
Partaidetza tasa guztira	54,6	54,6	54,9	55,1	55,1	55,1	55,1
- Gizonak	64,4	65,0	65,5	64,9	64,6	64,5	64,5
- Emakumeak	45,2	44,9	44,8	45,8	46,1	46,2	46,2
- 16 urtetik 24ra	34,9	33,5	35,1	33,9	35,8	35,6	35,5
- 25 urtetik 44ra	85,4	85,9	86,1	86,4	85,9	86,4	86,4
- 45 urte eta gehiago	36,6	36,7	36,8	37,3	37,6	37,3	37,4
Enplegu tasa guztira	52,3	52,9	53,2	53,4	53,3	53,2	53,1
- Gizonak	62,0	63,0	63,8	63,1	62,8	62,3	62,4
- Emakumeak	43,2	43,3	43,2	44,2	44,3	44,5	44,4
- 16 urtetik 24ra	32,1	30,9	32,6	31,5	32,6	32,1	32,2
- 25 urtetik 44ra	81,3	82,8	83,3	83,2	82,8	83,1	83,3
- 45 urte eta gehiago	35,8	36,0	36,0	36,7	36,9	36,6	36,4
Langabezia tasa guztira	4,1	3,3	3,1	3,1	3,3	3,5	3,5
- Gizonak	3,7	3,0	2,7	2,8	2,9	3,5	3,3
- Emakumeak	4,5	3,6	3,6	3,6	4,0	3,6	3,8
- 16 urtetik 24ra	8,1	7,6	7,2	7,1	8,8	9,9	9,2
- 25 urtetik 44ra	4,7	3,7	3,3	3,7	3,7	3,8	3,6
- 45 urte eta gehiago	2,2	1,8	2,0	1,5	1,9	2,0	2,5


Iturria: BJA (Eustat).

Inkesta horrek erakusten duen langabeziaren igoera (%15,3) oso garrantzitsua den arren, langabezia tasak %3,5ean jarraitu zuen aldaketarik gabe. Beraz, EAEko autonomia erkidegoa, Europako lurraldeen artean, langabezia tasa txikiena dutenetakoa bat da oraindik, Europar Batasuneko batez bestearen oso azpitik, azken hau %6,9an baitago. Hala ere, langabezia tasaren emaitza onek ezin dute ezkutatu langabeen kopuruaren bilakaera negatiboa, bai sexuaren bai adinaren arabera aztertuta. Lehenengoari dagokionez, gizonen langabeziak gorakada handia jaso zuen azken urtean (%21,9) eta emakumeenak, berriz, txikiagoa (%8,5). Horren ondorioz, bi sexuen arteko langabezia taseen arteko aldea txikia da oraindik. Adin taldeka aztertuta, langabeziaren igoera handiena gazteen kolektiboan gauzatu zen (%28,9) eta gero helduenen taldean (%26,4). Aitzitik, gehikuntza tasa apalena (%8,4) bitarteko taldeak jaso zuen, hain zuzen ere, lan errendimendu handiena duena.


Langabezia tasaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

10. irudia

Euskadi



Europar Batasuna



Iturria: Eustat eta Eurostat.


Lehenago aipatu diren datuak, neurri handi batean, INEMen estatistikek baieztatzen dute. Erakunde horren erregistroek adierazten dute lan merkatuan hasiak direla zailtasun larriak agertzen. Hain zuzen ere, hirugarren hiruhilekoan lanik gabekoak %10,2 areagotu ziren, baina laugarren hiruhilabeterako dagoeneko argitaratu direnak askoz ere handiagoak dira. Beraz, litekeena da inkestek argitaratuko dituzten hurrengo estimazioetan langabezia tasa igotzea.

Beste aldetik, erakunde horretan bertan jasotako kontratuen bilakaera ez da aldentzen ekonomia orokorra marrazten ari den norabide motelago horretatik. Zehazkiago adierazita, hiruhilekoan sinatutako kontratuen kopurua %-4,0 gutxitu zen, aurreko hiruhilekoan hasitako beherakadari jarraipena emanez. Zenbateko horri gehitu behar zaio mugagabe bihurtutako aldi baterako kontratuak balio negatiboetara (%-5,5) itzuli zirela, nahiz eta datu hori ezohiko emaitza bat bakarrik izan daitekeen.

Azkenik, aldibaterakotasun tasak %20aren inguruko tasetan jarraitu zuen eta badirudi muga hori gainditzea oso zaila dela, azken datuek frogatzen dutenez. Oraingoz, aldi baterako kontratua duten soldatapekoen ehunekoa %-0,6 murriztu zen, kontratu mugagabea duten soldatapekoena %2,0 areagotu zen bitartean. Beraz, EAEko tasa Estatuarena (%29,5) baino askoz ere txikiagoa da, baina oraindik urrun dago Europar Batasuneko batez bestetik.

Prezioak, kostuak eta soldatak

Ekonomiaren jarduera motelagoak prezioen bilakaera ere baldintzatu zuen. Izan ere, kontsumoko prezioen indizeak (KPI) %4,8ko tasa jaso zuen hirugarren hiruhilekoan, aurreko epealdiko emaitza hiru hamarrenetan gaindituz, baina gero nabarmen egin zuen behera eta abenduan %1,9ko balioa izan zuen. Prezioek azken hilabeteetan izan zuten gorakada eragin zuten kanpoko bi shockak, hots, petrolioaren prezioaren garestitze bat-batekoa eta janaritarako lehengaien garestitzea nazioarteko merkatuetan, udako hasieran gehienezko salneurriak markatu baitzituzten, zuzendu izanak inflazioa tasa apalagoetara hurbiltzea ekarri du. Halaber, eskariaren ahultasunak prezioen igoerak datozen hilabeteetan nahiko txikiak izango direla pentsarazten du.



Iturria: Eurostat eta INE.

Eurogunearen barruan, ekitaldiaren lehen zazpi hilabeteetan, inflazioak goranzko joerari atxiki zion, baina abuztutik aurrera joera hori bertan behera geratu zen, EAEn jazo zen bezala. Hala eta guztiz ere, azken lurralde horretan beherakada handiagoa izan zen eta, horren ondorioz, aipatutako bi eremuren arteko inflazio tartea puntu erdi batera murriztu zen azken hiruhilekoan. Hobekuntzaren arrazoia abenduan landutako elikagaiek eta energiako ekoizkinek izan zuten prezio apalagoetan datza. Erregaien merkatze garrantzitsuak eragin handiagoa izan

zuen EAEko autonomia erkidegoan Europan baino, bere pisua erosketen saskian handiagoa delako.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

18 TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2006	2007	2008			Ekarpena
			II	III	Abendua	
Inflazioa guztira (%100)	3,4	2,8	4,5	4,8	1,9	1,9
Azpiko inflazioa (%83,3)	2,9	2,8	3,3	3,5	2,7	2,3
KPI Landutako elikagaiak (%14,3)	3,6	4,0	7,7	7,3	3,3	0,5
KPI Industriako ondasunak (%29,3)	1,4	0,7	0,2	0,7	0,7	0,2
KPI Zerbitzuak (%39,7)	3,7	3,9	3,8	4,0	4,0	1,6
Hondarreko inflazioa (%16,7)	6,1	3,0	10,6	11,6	-2,1	-0,3
KPI Landugabeko elikagaiak (%7,9)	4,3	4,2	5,6	5,5	1,8	0,1
KPI Energia (%8,8)	7,9	1,9	15,1	17,1	-5,5	-0,5

Iturria: INE.

Azpiko inflazioari dagokionez, inflazio orokorra bezala, urte amaieran moteltzeko joera garbia erakutsi zuen, hirugarren hiruhilekoan jasotako %3,5etik abenduko %2,7ra eraman zuena. Igoerak apaltzeko joera hori landutako elikagaien salneurriaren ondorio zuzen da, lehengaien prezioa eragin zuten arrazoiak desagertuz joan ziren heinean. Hain zuzen ere, lehenago jaso ziren %7tik gorako hazkundearen aldean, urte amaieran landutako elikagaien garestitzea %3,3 baino ez zen izan. Beste aldetik, industriako ondasunek eta zerbitzuek urte amaieran ez zuten inolako aldaketarik jaso beren urte arteko tasetan. Bereziki kezkagarria da zerbitzuen arloan gauzatzen ari diren prezio igoerak, ekonomiak gaur egun bizi duen egoera jakinda ere, hazkundeak moteltzeko zantzu gutxi egiten duelako, kontsumo prezioen batez besteko igoera halako bi jasoz.

Indize orokorra horrenbeste jaisteak eta azpiko inflazioaren beherakada murriztagoa izateak pentsarazten dute KPIren osaerari kalte egiten dioten hondoko arazoak konpontzeke daudela oraindik. Arazo horiek lotuago daude lehia gutxiko egoeretara –industriako ondasunak, testuinguru global batean lehiatzen baitute, %0,7 garestitu ziren eta zerbitzuak, gutxiago lehiatzen baitute, %4,0- ekoizkin jakin batzuen (erregaiak edo elikagaiak, esate baterako) unean uneko egoera batera baino. Bestela adierazita, azpiko inflazioa ere jaisten ez bada, produktu gorabeheratsu horien beherako zikloa berriro aldatzen denean, KPI indizeak gora joko duen arriskua dago.

Ekoizkin taldeak aztertuta, oraindik badaude gehikuntza tasa altuegiak etxebizitzan, elektrizitatearen garestitzearengatik eta alokairuen prezioak igo direlako, etxebizitza erosteko zailtasunak areagotu direnez beste aukera bat direlako. Irakaskuntzak eta ostalaritzak ere uko egiten diote beren prezioen igoerak murrizteari eta indize orokorraren tasatik oso gora kokatu dituzte beren urte arteko tasak. Beste muturrean, garraioaren prezioa asko garestitu ondoren, %5etik gorako merkatzea jasotzera igaro da.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

19. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa


	2006	2007	2008			
			I	II	III	IV
Indize orokorra	3,4	2,8	4,3	4,5	4,8	1,9
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,1	3,8	7,5	7,2	7,0	2,6
Edari alkoholodunak eta tabakoa	2,0	6,6	3,6	4,3	4,1	4,1
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,4	0,8	0,7	0,5	0,6
Etxebizitza	6,3	3,6	4,5	6,0	7,7	6,8
Etxeko hornidura	3,0	3,5	3,5	2,8	2,7	3,1
Medikuntza	1,9	-0,5	-0,4	-0,1	-0,1	0,2
Garraioa	4,3	2,3	7,1	8,2	8,4	-5,3
Komunikazioak	-1,3	0,2	0,4	-0,1	-0,1	-0,3
Aisia eta kultura	0,4	-0,9	-0,2	-0,8	0,9	0,9
Irakaskuntza	4,5	4,5	4,6	4,6	4,6	5,1
Hotelak, kafeak eta jatetxeak	3,9	4,6	4,5	4,6	4,7	4,6
Besteak	3,0	3,2	2,9	3,3	3,7	3,8

Iturria: INE.

KPIrekin gertatu den bezala, petrolioaren salneurriaren gorabeherak industriako prezioen indizearen bilakaera baldintzatu zuten. Urte arteko aldakuntza tasak gora egin zuen uztaila arte eta harez geroztik moteltzeko joera bizia hartu zuen, azaroan %4,8an kokatzeko, argitaratu den azken hilabetea delarik. IPRIren norabide aldaketan osagai guztiek parte hartu bazuten ere, energiarena izan zen, zalantzarik gabe, bilakaera onena erakutsi zuen taldea, eta harekin batera kontsumo iragankorreko ondasunak ere, talde honen barruan elikagaien industria dagoelarik, prezioak asko murriztu baititu.

IPRIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

12 irudia



Iturria : Eustat.

EAE-KO INDUSTRIA PREZIOEN INDIZEA

20. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2008			
			I	II	III	Azaroa
Indize orokorra	5,0	4,0	5,6	6,8	9,3	4,8
Kontsumoko ondasunak	2,9	4,1	4,7	5,0	4,6	3,4
- Kontsumo iraunkorrak	0,6	1,4	2,0	2,2	3,6	3,6
- Kontsumo iragankorrak	3,8	5,3	5,8	5,8	5,0	3,3
Ekipamendurako ondasunak	0,9	3,9	3,4	2,7	2,8	2,8
Bitarteko ondasunak	6,2	6,0	2,0	3,2	6,5	5,5
Energia	8,9	-1,4	20,0	24,4	30,1	6,6

Iturria: Eustat.

Ekonomia bizitasuna galtzen ari den arren, hirugarren hiruhilekoan lan kostuek bizkor igotzen jarraitu zuten, inflazioa baino gehiago. Bereziki deigarria da kostuen bilakaera eraikuntzan, lanpostu gehien galdu dituen sektorean, alegia. Izan ere, eraikuntzako kostuak %6,1 areagotu ziren urte arteko tasan uztaila eta irailaren artean. Lan kostuen gorakadan, alde batetik, lan hitzarmentako salbagoardiako klausulek izan dute eragina, baina, beste aldetik, langabeziaren

igoerak ere azaltzen du bilakaera hori, zeren eta galdu diren lanpostu gehienak trebakuntza apaleko lanak baitziren, eta enpleguaren osaera aldatzen denez, batez besteko lan kostua igotzen da. Beraz, aurreko epealdien aurkako efektua gertatu da orain, orduko hartan soldata apaleko langileak kontratatzen zirenez, batez besteko soldata igoera txikiagoa zelako.

LAN KOSTUEN BILAKAERA

21. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2006	2007	2007		2008		
			III	IV	I	II	III
Kostu guztiak	2,3	4,7	5,1	4,9	5,9	6,3	5,3
- Soldata kostuak	2,2	4,8	4,9	4,8	6,1	6,4	5,9
- Bestelako kostuak	2,7	4,4	5,8	5,1	5,2	6,1	3,6
Kostu guztiak industrian	2,9	4,3	4,3	3,4	8,2	7,0	6,0
Kostu guztiak eraikuntzan	4,6	6,8	7,2	9,1	4,5	4,5	6,1
Kostu guztiak zerbitzuetan	2,2	4,7	5,4	5,1	5,0	6,5	5,1

Iturria: INE.

Azkenik, 2008. urterako adostu diren lan hitzarmenetan jasotako soldata igoerak aurreko urtekoak baino askoz ere handiagoak izan ziren, inflazioa gorantz doanean gertatu ohi denez. Pentsatzekoa da soldaten negoziazioak kontrako norabidea hartuko duela 2009. urterako hitzarmenetan. Alde batetik, ez dirudi salbagoardiako klausulek eragin handirik izango dutenik eta pasa den urteko inflazioari egiten zaizkion erreferentziek batez besteko igoera nabarmen motelduko dute. Beste aldetik, enpresek 2009. urtean pairatuko dituzten zailtasunek berek bigarren mailan utziko dute soldaten negoziazioa, enpleguari eusteko ahaleginaren mesedetan.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

22. TAULA

	2004	2005	2006	2007	2008 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	4,0	4,5	4,9	4,2	5,0
- Urtean zehar sinatutakoak	3,9	4,3	5,0	4,1	4,9
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	4,0	4,6	5,0	4,2	5,2
- Enpresako hitzarmenak	3,8	4,1	4,1	4,2	4,1

(*) 2008ko urria arte jasotako lan hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Arlo publikoa

Aurrekontuen egikaritzari dagokionez, diru sarrera arruntek iraila arte eta aurreko hiruhilabetearen aldean izan zuten narriadura (%-0,8 aurreko hiruhilabeteko %5,4ko igoeraren aldean) azpimarratu behar da. Arrazoen artean, ekonomiaren hazkundeak izan duen moteltzea, eszenategi makroekonomikoan islatu denez, eta administrazioak onartu dituen zergen beherakadak, hala nola IRPFren tarifa jaitsiera, aipatu behar dira.

Hala eta guztiz ere, gastu arruntek ia ez zuten inolako aldaketarik izan bigarren hiruhilekoaren aldean, %103tik %9,5era jaitsita. Izan ere, langileen gastuek aurreko emaitza berdindu zuten, datozen hiruhilekoetan goi mailako kargudunen soldatak, gastuak gutxitzeko asmoa dagoela adierazteko, izoztuko badira ere. Moteltze nabarmenagoa funtzionamenduko gastuen atalean jaso zen (%14,6tik %11,8ra), eta hilabeteak aurrera joango diren neurrian igoera gutxitzeko joera hori areagotuko da, zerbitzu publikoen ematearekin zuzenean lotuta ez dauden ezaugarri horretako gastuak murrizteko helburua ezarri baita. Azkenik, inbertsioetarako gastuak nabarmen handitu dira eta kapitaleko gastuek %20,2ko hazkundera jaso zuten, bizitasun gutxiagoko une hauetan ekonomiaren jarduera suspertzeko.

AURREKONTUEN ERAGIKETA BATERATUAK (2008ko urtariletik irailera)

23. TAULA

Mila eurotan

	2007	2008	Aldak. %
1. SARRERA ARRUNTAK	10.191.770	10.107.777	-0,8
2. GASTU ARRUNTAK	7.692.389	8.423.679	9,5
Langileen gastuak	1.431.935	1.551.119	8,3
Funtzionamenduko gastuak	1.970.624	2.202.424	11,8
Finantza gastuak	34.463	38.120	10,6
Transferentzia arruntak	4.255.367	4.632.016	8,9
3. ERAGIKETA ARRUNTEN SALDOA (1-2)	2.499.381	1.684.098	-32,6
4. KAPITALEKO SARRERAK	41.879	108.323	158,7
5. KAPITALEKO GASTUAK	729.068	876.145	20,2
Inbertsio errealak	386.724	415.140	7,3
Kapitaleko transferentziak	342.344	461.005	34,7
6. KAPITALEKO ERAGIKETEN SALDOA (4-5)	-687.189	-767.822	-11,7
7. FINANTZAZ BESTELAKO ERAGIKETEN SALDOA (3+6)	1.812.192	916..276	-49,4

Iturria: Ogasun eta Herri Administrazio Saila.

Zergen bidezko diru sarrerak nabarmen gutxitu ziren azaroaren amaiera arte, batez ere, zeharkako zergen portaera txarraren ondorioz (%-10,3), baina baita zuzeneko zergen jaitsiera arinarengatik ere (%-0,3), itundutako zergen diru bilketa osoa aurreko urteko epe beraren aldean %-4,7 gutxitzea ekarri baitzuten.

Zuzeneko zergen barruan, Pertsona Fisikoen Errenten gaineko Zergaren (PFEZ) moteltzea azpimarratu behar da, nahiz eta oraindik hazkunde tasa aipagarriak (%4,3) lortu zituen. Kontuan hartu behar da lan merkatuaren ahultasunak eta ekonomia suspertzeko zergen eremuan onartu ziren aldaketa jakin batzuek zerga horren diru bilketa murriztu dituztela. Hala eta guztiz ere, zerga horren bi osagai nagusiek, hots, lanaren etekinen atxikipenak eta kapital higigarriaren atxikipenak, hazkunde tasa garrantzitsuak jaso zituzten, azken horiek inbertsio funtsen salmentei esker.

Beste aldetik, sozietateen gaineko zergak bilakaera negatiboena izan zuen zerga nagusien artean, %-11,9ko beherakada jaso zuelako. Jaitsiera garrantzitsu horren atzean, alde batetik, arrazoi ekonomikoak daude, hala nola enpresen mozkinen okertzea; beste aldetik, araudian eginiko aldaketak daude, tipoak gutxitu direlako eta kenketak aldatu direlako; eta, azkenik, bestelako zenbait arrazoi ere daude, enpresak bultzatzeko sozietate ugari agertu izana, kuotaren inbertsioetatik %20 kendu dezaketenak.

Zeharkako zergei dagokienez, atzerakada garrantzitsua gertatu da. Hain zuzen ere, BEZ zergak azaroa arteko diru bilketa %-10,0 murriztu zuen, kontsumo pribatuaren eta etxebizitzaren erosketaren okertzeagatik, bereziki. Aurrekoei gehitu behar zaie zergak bateratzeko erregimen berriak izan duen eragin negatiboa. Erregimen hori, praktikan, itzulketen aurrerapen bat da, talde bereko enpresei ordaintzeko saldoak eta jasotzeko saldoak konpentsatzeko aukera ematen dielako.

Azkenik, fabrikazioaren zerga bereziak balio positibotan (%0,4) mantendu ziren, baina hazkunde erritmoa zertxobait moteldu zen, zeren eta dirua biltzeko ahalmen handiena duen zergak –hidrokarburoen gaineko zergak- automobilen salmenten atzerakada bortitza pairatu baitzuen. Ibilgailuen beherakada, bigarren eskukoak direnean, eta erabilitako etxebizitzaren salmenta urriagoak kalte handia egin zieten ondare eskualdatzeen gaineko zergari (%-52,0) eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari (%-13,6), azken hau sozietate eragiketa garrantzitsurik ezak ere kaltetuta.

ZERGA ITUNDUEN BILAKAERA (2008ko urtariletik azarora)

24. TAULA

Mila euro

ZERGAK	Diru bilketa			
	2007	2008	Aurrekon. %	08/07 aldak. %
PFEZ	3.887.822	4.055.986	92,1	4,3
- Lanaren eta lanbide jardueraren etekinen atxikipenak	3.701.196	3.968.731	92,7	7,2
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	207.699	279.457	122,9	34,5
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	38.985	67.238	157,9	72,5
- Ondare irabazien atxikipenak	33.120	29.734	76,9	-10,2
- Profesionalen eta enpresarien ordainketa zatikatuak	181.223	173.301	89,2	-4,4
- Kuota diferentzial garbia	-274.401	-462.476	---	-68,5
Sozietateen gaineko zerga	1.934.257	1.704.912	84,2	-11,9
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	207.699	279.457	122,9	34,5
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	38.985	67.238	157,9	72,5
- Ondare irabazien atxikipenak	33.120	29.734	76,9	-10,2
- Kuota diferentzial garbia	1.654.453	1.328.482	77,4	-19,7
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	142.914	151.570	126,6	6,1
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	66.809	74.769	92,6	11,9
Ondarearen gaineko zerga	154.295	181.152	108,1	17,4
ZUZENEKO ZERGAK GUZTIRA	6.186.388	6.168.388	90,8	-0,3
BEZaren bertoko kudeaketa	3.279.213	2.950.984	76,4	-10,0
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	347.476	166.648	40,7	-52,0
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	121.286	104.755	75,0	-13,6
Garraiobide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	67.826	44.659	55,3	-34,2
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	1.332.924	1.338.159	86,9	0,4
Hidrokarburu jakin batzuen txikizkako salmentaren zerga	51.953	53.035	99,1	2,1
Aseguru sarien gaineko zerga	65.589	65.532	80,2	-0,1
Iraungitako zergak	1.265	165	16,5	-86,9
ZEHARKAKO ZERGAK GUZTIRA	5.267.533	4.723.936	76,6	-10,3
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	98.022	95.622	78,2	-2,4
BERTON KUDEATUTAKO ZERGA ITUNDUAK	11.551.652	10.987.946	84,0	-4,9
BEZaren doikuntza	775.181	760.243	59,4	-1,9
Zerga berezien doikuntza	-91.535	-92.534	----	-1,1
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA	12.235.297	11.655.655	81,6	-4,7

Iturria: Foru Aldundiak.

Finantza arloa

Herrialde nagusietako moneta eta politika agintariek neurri asko hartu dituzten arren, finantza krisia ekonomia errealeraren igaro da, azkenaldi honetako etapa korapilotsuena eraginez. AEBetako enpresa Lehman Brothersen porrotak eta finantza merkatuetako tentsioak areagotu izanak gelditze erabatekoa ekarri zuten finantza arlora, Europako bankuak ere kutsatu zituen. Egoeraren larriak ekonomia agintariak behartu zituen aparteko erabakiak hartzera, finantza merkatuak egonkortzeko eta konfiantza merkatuetara itzultzeko. Egoerari aurre egiteko, banku zentral guztiek ohikoa baino likidezia gehiago eman zieten merkatuei, eta epe luzeagokoak, baina neurri horiek ez ziren nahiko izan.

Bilatzen ziren ondorioak iristen ez zirenez, 2008ko urriaren 8an, munduko banku nagusiek ekintza koordinatu bat iragarri zuten, likidezia dolarretan areagotzen zuena eta kreditu merkatuen itxitasuna zabaldu nahi zuena. Beraz, Erreserba Federalak, Europako Banku Zentralak eta Ingalaterrako, Kanadako, Suitzako eta Suediako banku zentralek puntu erdi bat jaitsi zuten interes tasa. Garapen bidean dauden hainbat ekonomiatako moneta agintariek ere bide bera hartu zuten. Hala eta guztiz ere, eta banku zentral nagusiek likidezia gehiago sartu bazuten ere, neurri horiek ez ziren nahiko izan.


Hori dela eta, egun gutxi beranduago, Erreserba Federalak beste puntu erdi bat jaitsi zituen funts federalak eta diruaren prezioa %1,0an kokatu zuen, hamahiru hilabetez jarraian interes tasak jaitsiz. Japoniako Bankuak bere esku hartze tasa 0,2 puntu murriztu zuen %0,3an uzteko, bertako burtsaren beherakada bortitzaren ondorioz, azken 26 urteko baliorik txikienean baitzegoen. Ingalaterrako Bankuak, azkenik, 150 oinarri puntutan merkatu zuen diruaren prezioa, adituek aurreikusten zutena baino jaitziera handiagoa izan zena, %3,0an kokatuta. EBZk 50 oinarri puntu beheratu zituen, %3,25era arte. Azken ekintza honi beste banku zentral batzuk ere gehitu zitzaion, hala nola Koreakoa, Txinakoa, Norvegiakoa, Australiakoa eta garatutako beste batzuetakoak ere, guztiak ekonomiaren eta finantza jardueraren amiltzeari aurre egiteko asmoz, kreditua suspertzeko eta kontsumitzaileen gastuaren zein bankuen maileguen beherakada gelditzeko.

Testuinguru horretan, Espainiako bankuen egonkortasuna azpimarratu behar da, estatubatuar produktu gutxi erosi zituztelako eta Espainiako Bankuak garatu zuen kontrol politika zorrotza zelako. Horren ondorioz, espainiar bankuak, teoriarik, egoera hobean daude finantza zurrumbiloaren ondorioei aurre egiteko.

Bankuen porrotek eta banku zentral nagusien erabakiek, hala esku hartze tasen beherakadengatik nola likidezia injekzioengatik, truke tasaren bilakaera osorik baldintzatu zuten. Zehazkiago adierazita, euroak dolarraren aldean izan zuen truke tasa izan zen gorabehera handienak bizi zituen. Irailaren hasieran euroak 1,40 dolarreko balioa markatu zuen arren, une horretatik aurrera, eta AEBek aurkeztu zuten erreskate planak eraginda, euroak balioa berreskuratu zuen. Hala ere, irabaziak astebete eskas iraun zuen, Euroguneko albiste txarrek eta EBZk interes tasak berriro jaitsiko zituelako iragarpenak euroa ahuldu zuten, 2006ko balioetara itzuliz, kotizazioa 1,273 dolar euroko zelarrik. Yenaren aldean ere galdu zuen balioa, trukea 123,28 yenetan kokatuta, 2001eko amaieratik txikiena, neurri batean, finantzaziorako yenetan emandako maileguak (carry-trade eragiketak) ordaintzeko.

Banku zentralen erreferentzia tasak
Ehunekoak

13. irudia



Iturria: Espainiako Bankua.


Era berean, Ingalaterrako Bankuaren gobernadorearen adierazpenek, Erresuma Batua atzeraldian sartzeko arriskuan zegoela onartuz, liberaren kotizazioa, hala dolarraren aldean nola euroarekiko, jaisteia ekarri zuen, 83,10 penny euroko kotizatzerira iritsi baitzen, 1996. urtetik inoiz izan duen baliorik gorena. Azkenik, Suitzako frankoak balio apur bat irabazi zuen, Euroguneko aurreikuspen txarrentatik.

Europako Banku Zentralak euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak


14. irudia

Moneta unitateak euro bakoitzeko


Dolarra




Libera esterlina



Suitzako frankoa



Yena




Iturria : Espainiako Bankua.

Finantza merkatuetako mugimenduek burtsen bilakaera baldintzatu zuten. Irailean, Lehman Brothers negozio bankuaren porrotak, Merrill Lynch en erreskatea azken unean eta AIG

aseguru-etxearen arazoez kreditu krisiaren berragerpena eragin zuten. Hori dela eta, inbertitzaile gehienek bankuen tituluak saltzeari ekin zioten, 2008ko otsailetik burtsek izan duten jaitsierarik handiena eraginez. Gero, urrian, Euroguneak bankuen likidezia igotzeko eta kredituaren fluxua suspertzeko hartu zituen neurriek baikortasuna ekarri zuten inbertitzaileen erabakietara, eta Espainiako, Frantziako eta AEBetako burtsetako indizeak %10 baino gehiago igo ziren.

Bilakaera positibo horri gehitu zitzaion banku zentral nagusien interes tasen beherakada orokorrak eta nolabaiteko egonkortasuna lortu zen burtsen bilakaeran. Hala eta guztiz ere, eta urteko azken hilabeteetan mundu osoko burtsa nagusien aldaketa gutxiko joera egonkorra erakutsi duten arren, oraindik oso urrun daude azken urteetan lortutako balioetatik. Izan ere, indize horietako gehienak 2007. urtean lortutako kotizazioaren erdian edo hortik hurbil kokatuta daude.



Iturria: Espainiako Bankua.


Mesfidantza areagotu izanak eta etengabeko zurrunbiloek urte baterako euriborra EBZren esku hartzeko tasaren oso gainetik haztera eramán zuten, kreditu bat hartzea are gehiago zailduz. Hala ere, EBZk urrian puntu erdiko beheraketa onartu zuenez, etorkizunean ere jaitsiera gehiago iritsiko zirela uste zenez, eta likidezia injezioak egin zituztenez, euriborrak tentsioa galdu zuen. Uztailen jaso zuen gehienezko balioa, %5,512ra iritsita, eta harez geroztik 1,272 ehuneko puntu galdu ditu. Are gehiago, datozen hilabeteetan ere jaisten jarraituko duela

aurreikusten da, Atlantikoaren bi aldeetako moneta politika gero eta malguagoa delako eta horrek emandako kredituen kopurua areagotuko du.


Kreditu eta gordailuen bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

16. irudia

Kreditu pribatuak



Gordailu pribatuak



Iturria: Espainiako Bankua.

Urteko hirugarren hiruhilekoan kreditu pribatuen bilakaeran gorakada hauteman bazen ere, hiruhilabete horretako batez besteko hazkundera azken hamabi urteko bigarren tasarik txikiena izan zen. Berankortasuneko tasa kaltetuta atera zen ekonomiaren bilakaerarengatik eta gorakada txikia jaso zuen, %1,55era arte, urteko lehen hiru hilabeteetan zegoenaren (%0,88) ia bikoitza delarik. Gehikuntza horren atzean, diruaren garestitzea, familiek eta enpresek pairatzen dituzten ekonomia zailtasunak, eta arautze zorrotzago bat daude. Ordaindu gabekoen kopurua igo zen arren, oraindik nahiko apala da, are gehiago kontuan hartzen bada estaldura orokorreko ratioa %124tik gora dagoela, hots, berankortasuneko euro bakoitzeko 124 daude hura estaltzeko. Estatuan, ratio hori %2,5aren gainean kokatu zen hirugarren hiruhilekoan.

Merkatuetan banku finantzaziorako dauden zailtasunek arlo pribatuaren gordailuak lortzeko interesa piztu zuen finantza erakundeetan, eta enpresen eta familien gordailuak ordaintzeko interes tasak igo ziren, ahalik eta kopuru handiena lortze aldera. Ekintza horren ondorioz, gordailu pribatuak %18,3 areagotu ziren, bereziki eperako gordailuen ordainketa, aurreko hiruhilabeteko erritmoa baino gutxiago baina azken 25 urteko gorenetakoa, zalantzarik gabe.

EAE-RAKO ETA TESTUINGURURAKO EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Kanpo testuinguruarentzat eginiko aurreikuspenak

Nazioarteko ekonomiaren egoera kezkarria da eta etorkizun hurbilean ez dago arrazoi askorik baikorrak izateko. Ekonomia aurreikuspenak egiten dituzten erakunde nagusiek oso beherantz zuzendu dituzte 2009. urterako lehendik zeuzkaten azken estimazioak. Munduko ekonomiaren hazkundeaz argitaratu diren analisi guztiak bat datoz 2009. urtean moteltzeko joera garrantzitsua gertatuko dela iragartzeko orduan. Kontuan hartuta ekonomia garatuetan oso litekeena dela, ia segurua, ateraldia agertzea, munduko ekonomiaren bilakaera garapen bidean dauden herrialdeen trakziorako indarraren araberakoa eta mendebalean sortutako krisiak ekonomia hauetan edukiko duen intentsitatearen araberakoa izango da. Oro har, nolabaiteko baikortasuna egon arren eta finantza krisiak azaleratu berri diren herrialdeen ekonomia errealean kalte handirik ez duela egingo uste den arren, eskura dauden azken datuek adierazten dute ekonomia igurikimenak nabarmen okertu direla eta finantza merkatuetako mesfidantza areagotu dela. Horren ondorioz, litekeena da garapen bidean dauden herrialdeak ere kaltetuta ateratzea.

AEBetako ekonomiarentzat egin diren epe laburreko aurreikuspenak ez dira bat ere baikorrak. Atzeraldia datorrena ekonomiaren analisigile gehienek onartzen dute dagoeneko. Familien portaera erabakigarria izango da eta atzeraldiaren tamaina eta iraupena zehaztuko ditu, kontsumo pribatua bertako BPGren %70 baino gehiago delako. Baina estatubatuar familien konfiantza inoizko mailarik apalenean dago, higiezinen eta finantza aberastasuna lurrundu delako, lan merkatu pribatuak okerrera egin duelako, soldata errealak jaitsi direlako eta kreditu bat lortzea oso zaila delako. Horietaz gain, komunikabideetan ere etengabeko ezkortasuna aireratzen da. Giro horri aurre egiteko, krisia, modu batean edo bestean, leundu dezaketen elementuak gobernu federalak zikloaren kontra bideratu dituen egitarauak eta petrolioaren prezioaren goranzko joerak izan berri duen norabide aldaketa aipatu behar dira. Eskariaren murrizketa garrantzitsuaren ondorioz, inflazioa ez da arazo bat izango epe laburrean. Honek interes tasak 2009. urtean zerotik oso hurbil edukitzea ekarriko du.

Datozen hiruhilekoetan frogatuko da Asiako ekonomiak AEBetako ekonomiari lotuta dauden edo desakoplatuta dauden, baina pentsatzekoa da ere gaurkoa bezalako testuinguru batean, non merkatuetako globalizazioa etengabea den, azken hipotesi horrek oinarri gutxi duela. Ekonomia jarduera nazioartera igarotzeko dauden ohiko moduak, hala nola atzerriko inbertsio zuzenak, finantza arloko inbertsioak eta kanpo merkataritza, izango dira ekonomia aurreratuetako gelditasuna garapen bidean dauden herrialdeetara eramatearen arduradunak. Oraingoz, Txinarentzat eta Asiako beste herrialde garrantzitsu batzuentzat egin diren

aurreikuspenak beherantz berrikusi dira, baina oraindik bizitasun handia erakusten dute bere hazkunde erritmoan. Txina buruan dago berarentzat estimatu den %8,5eko hazkundearekin (NDF, 2008ko azaroa). India hurbil dago, %6,3ko tasa batekin.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

25. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG			Kontsumoko prezioak		
	2007	2008	2009	2007	2008	2009
Munduko Ekonomia	3,9	2,4	0,4	3,2	4,8	2,3
AEB	2,0	1,2	-1,3	2,9	4,0	0,3
Kanada	2,7	0,7	-0,1	2,2	2,4	1,2
Japonia	2,4	0,4	-0,9	0,0	1,6	0,1
Eurogunea	2,6	1,0	-0,9	2,1	3,3	1,4
Europar Batasuna	2,9	1,2	-0,7	2,3	3,5	1,6
Alemania	2,5	1,6	-1,2	2,3	2,7	1,1
Espainia	3,7	1,2	-1,2	2,8	4,2	1,8
Frantzia	2,1	0,9	-0,6	1,5	3,0	1,4
Herbehereak	3,5	2,0	-0,4	1,6	2,6	1,6
Italia	1,4	-0,4	-1,1	1,8	3,4	1,6
Erresuma Batua	3,0	0,8	-1,5	2,3	3,6	1,2
Pazifikoko Asia	6,3	4,2	2,7	2,7	4,7	2,0
Ekialdeko Europa	7,0	5,3	3,0	8,5	11,1	8,3
Amerika Latina	5,5	4,3	2,1	6,1	8,4	7,1

Iturria: Consensus Forecast (2008ko abendua).

Japonia ez dago moteltzeko joera orokorretik salbu. Deflazioak iraganean sortu zizkion arazoak gainditu baditu ere, ekonomiaren analisigileek hazkunde txikia iragartzen dute 2009. urterako. Hala inbertsioa nola, bereziki, familien kontsumoa gero eta okerrago daude eta enpresa txikietan eta ertainetan eraginkortasun faltako eta lehiakortasun galerako arazo larriak agertu dira. Joera horrekin, Japoniak pisu gehiago galduko du munduko ekonomiaren testuinguruan.

Eurogunearen ekonomia hazkundeak moteltzeko joera garrantzitsua jasoko du, AEBetan sortutako finantza krisiaren eragin kateatuen ondorioz. Izan ere, mendebaleko ekonomiaren joera aldaketak bereziki Europan izango du eragina, kalteberatasun handia erakusten baitu horren aurrean, eremu horretako hainbat ekonomia dagoeneko atzeraldian sartuta edo sartzeaz baitaude. Euroguneko ekonomiek higiezinaren merkatua doitzea oztopatzen duen finantza krisia


noztu dute. 2009. urterako, ekonomiaren gelditasuna iragartzen da, hiruhileko batzuetan hazkunde negatiboa jasoko baita. Narriaduraren abiadurak ezkortasuna eragin du eta enpresen, inbertitzaileen eta kontsumitzaileen konfiantza krisia areagotu, interes tasaren jaitsierak baino pisu gehiago duen gupil zoro bat sortuz. Agintariek larrialdietarako hainbat neurri jarri dituzte martxan eta beraien eraginkortasuna atzeraldiaren iraupenaren arabera izango da.

BPGren bilakaera eremuka


17. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak


Eurogunea




AEB



Japonia



Txina



Iturria : NDF. 2008ko azaroko aurreikuspenak.


Atzeraldiaren tamaina zuzenean lotuta dago herrialde bakoitzeko higiezinaren egoerarekin eta banku sistemaren sendotasunarekin. Finantza arloa suspertu arte eta kreditua normaltasunez

eman arte, hazkunderako aurreikuspenak oso ezkorrak izango dira. Aditu baikorrenek Europako ekonomiaren susperraldia 2009. urteko bigarren erdian kokatzen dute.


Truke tasaren eta petrolioaren prezioaren bilakaera

18. irudia

Dolarrak euroko



Dolarrak upeleko



Iturria: Espainiako Bankua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa eta CEPREDE.

Eskari globalaren moteltzeak eta lehengaien merkatzeak inflazioaren beherakada ekarri dute. Testuinguru horretan, Europako Banku Zentralak bere hamar urteko bizitzan inoiz egin duen interes tasen jaitsierarik handiena onartu du. Aurreikuspenen arabera, prezioak onartzeko moduko maila batean igoko dira epe ertainean. Inflazioaren moteltzea areagotzen bada eta ekonomiaren hazkundera are gehiago apaltzen bada, 2009. urtean interes tasak berriro jaitsiko direla pentsarazten du.

Atzeraldiak modu bortitzenean joko duen europar herrialdeetako bat Espainia da. Herrialde horretako ekonomiaren bilakaera aurreikusten duten erakunde guztiek beheranzko berrikusketa handia egin dute 2009. urterako hazkunde aurreikuspenen atalean. Espainiar ekonomiak azken hilabeteetan izan duen bilakaerak eta nazioarteko testuinguruaren okertzeak gaur eguneko aurreikuspenek duela zenbait hilabete eginikoei baino motelaldi handiagoa erakutsi dezatela eragin dute. Hain zuzen ere, Funcas-eko adituen taldeak %0,9ko hazkundera iragarri du Espainiarentzat 2009. urtean. Hazkunde aurreikuspenaren muturrak %1,5ean, iragarpen ezkorrenean, eta %0,1, baikorrenean, kokatzen dira.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2008ko azaroa-abendua)

26. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG		Familien kontsumoa		Kontsumo publikoa		Inbertsioa		Inbertsioa eraikuntzan		Inb. ekipoen eta bestean	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
AFI	1,3	-1,0	1,0	-1,5	3,7	4,9	-1,0	-7,6	-3,0	-10,1	0,7	-8,2
BBVA	1,3	-1,0	1,1	-0,5	3,8	3,5	-2,0	-9,1	-4,0	-9,6	-1,3	-13,9
Caixa Catalunya	1,3	-0,9	0,8	-2,3	4,8	4,4	-1,1	-3,8	-4,0	-6,7	1,3	-3,5
Caja Madrid	1,2	-1,3	0,7	-2,5	4,5	3,3	-1,7	-10,3	-4,8	-13,0	1,3	-10,3
CEPREDE-UAM	1,3	-1,0	0,9	-0,9	4,0	2,7	-0,5	-4,4	-2,7	-6,9	2,4	-0,9
Merkataritza ganbarak	1,3	-0,6	1,0	-0,3	3,8	3,1	-0,5	-5,2	-3,1	-7,5	2,0	-3,4
FUNCAS	1,2	-1,5	0,4	-2,0	5,0	3,5	-1,8	-8,4	-4,3	-9,4	0,1	-9,9
ICAE-UCM	1,3	-0,9	0,6	-1,2	4,8	4,1	-1,2	-5,4	-4,3	-7,6	1,4	-6,0
ICO	1,3	-1,3	1,1	-1,0	4,5	4,5	-0,3	-5,0	-3,5	-10,0	1,5	-6,0
IEE	1,3	-0,6	0,8	-0,1	3,5	3,7	-0,5	-2,7	-1,9	-3,4	0,3	-3,1
IFL-UC3M	1,2	-1,0	0,6	-1,0	5,0	2,7	-1,8	-8,6	-4,4	-10,3	0,6	-9,1
Intermoney	1,4	0,1	1,1	0,4	4,0	4,1	-1,0	-5,1	-3,5	-7,7	1,5	-3,8
La Caixa	1,3	-1,0	0,7	-0,9	5,1	4,5	-1,5	-5,9	-4,1	-8,5	1,3	-3,6
SCH	1,3	-0,9	0,8	-1,1	4,4	3,8	-1,2	-6,3	-3,7	-8,5	1,0	-6,3
Batez bestea												
Gogoratzekoa:	1,6	1,0	0,7	0,4	4,9	3,8	0,3	-1,5	-1,8	-5,1	2,8	2,7
Gobernua (2008-09)	2,4	2,1	2,3	1,9	4,8	4,4	1,5	0,4	-0,2	-1,2	4,4	2,6
Esp. Bankua (2008-04)	1,3	-0,2	0,9	-0,4	4,1	1,3	-1,6	-5,8	-3,8	-7,6	0,8	-5,2
E. Batzord. (2008-11)	1,4	-0,7	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---
NDF (2008-11)	1,3	-0,9	1,2	-0,4	3,6	3,4	-2,0	-9,2	---	---	---	---
ELGE (2008-11)	1,6	1,1	1,2	1,1	5,1	5,2	0,0	-2,8	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

Kontsumoak eta, bereziki, inbertsioak jaitsiera garrantzitsuak izango dituzte 2009. urtean. Higiezin merkatuaren amiltzeari kredituen murrizketa, finantzaziorako baldintza zorrotzagoak, langabeziaren balizko gorakada eta eragileen konfiantza galera erantsi behar zaizkio orain. Aurreikuspenen arabera, kanpo eskariak ekarpen positiboa egingo dio BPGren hazkundeari, inportazioak esportazioak baino gehiago gutxituko direlako, barne eskariaren izoztearen ondorioz. Ekonomiaren hazkundera bezala, lan merkatua ere okertuko da. Enplegua %-2,5 jaitsiko da Espainian 2009. urtean. Lanpostuen galera garrantzitsu horrek adierazten du eraikuntzan bideratzen ari den berregituraketa gainontzeko arloetara ere eragiten ari dela.

ESPAINIARENTZAKO AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK (2008ko azaroa-abendua)

27. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	Nazio eskaria		Esportazioak		Inportazioak		KPI (batez bestea)		Enplegua		Langabezia tasa (BIA)	
	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009	2008	2009
AFI	1,0	-2,2	3,3	-1,3	1,7	-4,4	4,3	2,6	-0,3	-3,4	11,1	15,6
BBVA	0,8	-2,0	3,1	-1,6	1,1	-4,3	4,3	2,3	-0,2	-2,7	11,0	15,4
Caixa Catalunya	0,9	-1,4	3,0	1,7	1,0	-0,5	4,2	1,1	-0,1	-2,2	10,8	13,5
Caja Madrid	0,8	-3,3	3,2	1,1	1,4	-4,7	4,2	1,7	-0,4	-3,9	11,1	15,8
CEPREDE-UAM	1,3	-0,9	3,1	2,1	2,4	0,7	4,3	2,9	0,0	-2,3	10,8	14,4
Merkataritza ganbarak	1,3	-1,0	3,3	-0,2	2,6	-1,3	4,3	2,7	0,2	-1,4	10,9	15,0
FUNCAS	0,6	-2,7	2,9	0,2	0,5	-4,1	4,2	1,8	-0,4	-3,4	11,2	15,9
ICAE-UCM	0,8	-1,6	2,7	0,3	0,7	-1,7	4,3	2,9	0,1	-0,7	11,0	14,8
ICO	1,1	-1,9	3,2	1,7	2,0	-0,5	4,2	2,0	-0,1	-2,0	11,0	15,5
IEE	1,0	-0,3	2,4	2,2	1,2	0,9	4,2	2,0	-0,2	-2,2	11,0	15,1
IFL-UC3M	0,6	-2,4	3,0	1,3	0,8	-3,5	4,1	1,1	-0,3	-3,5	11,1	15,5
Intermoney	1,0	-0,5	3,8	2,1	2,2	-0,2	4,2	2,1	-0,1	-1,5	10,9	13,6
La Caixa	0,9	-1,4	2,8	-0,5	1,0	-1,7	4,3	2,3	-0,1	-2,7	11,0	15,4
SCH	0,9	-1,7	3,1	0,7	1,4	-2,0	4,2	2,1	-0,1	-2,5	11,0	15,0
BATEZ BESTEA												
Gogoratzekoa:	1,3	0,5	4,1	4,0	2,6	1,9	----	----	0,2	-0,5	10,4	12,5
Gobernua (2008-09)	2,5	1,9	4,0	4,5	4,1	3,4	3,6	2,3	1,5	1,1	9,0	9,8
Esp. Bankua (2008-04)	0,7	-1,6	3,4	2,3	1,3	-2,5	4,2	2,1	-0,2	-2,0	10,8	13,8
E. Batzord. (2008-11)	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----	----
NDF (2008-11)	----	----	3,2	3,7	0,9	-1,6	4,4	1,8	----	----	10,9	14,2
ELGE (2008-11)	1,5	0,7	4,3	4,6	3,6	2,9	---	---	---	---	---	---

Iturria: Funcas.

Ekonomia foroetan, 2009ko bilakaeraz dagoen adostasuna erabatekoa da. Analisisgileen helburua etorkizuneko joera aurreikustea da. V itxurak adierazten du atzeraldia laburra izango dela, zortzi hilabete ingurukoa, eta susperraldia indartsua izango dela. U itxurak esan nahi du atzeraldia luzeagoa izango dela, 12tik 18 hilabetera bitartekoa, eta oso sakona. Azkenik, L itxurak gelditasun luzea aurreratzen du. Espainiar ekonomiaren aurreikuspenek U itxura iragartzen dute, analisia ezkortasunez bustiz. Atzeraldia ireteera ez da ez sendoa ez azkarra izango, higiezinen merkatuan eta familien zorpetzean doikuntzak egin behar direlako.

HIRUHILABETEKAKO AURREIKUSPENAK ESPAINIARENTZAT (2008ko azaroa)

28. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak



	08.IV	2008	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009	2010
BPG	0,0	1,3	-0,8	-1,1	-1,1	-1,0	-1,0	-0,1
Kontsumo pribatua	0,1	1,2	-0,5	-0,9	-1,1	-0,9	-0,9	-0,2
Kontsumo publikoa	3,4	3,6	3,3	2,8	2,4	2,2	2,7	2,1
Kapital finkoaren eraketa gordina	-2,5	-0,5	-4,2	-4,7	-4,6	-4,2	-4,4	-2,6
- Inbertsioa ekipamenduan	0,6	2,4	0,1	-1,1	-1,2	-1,2	-0,9	-0,5
- Inbertsioa bestelakoetan	0,2	2,7	-1,6	-2,1	-1,9	-1,3	-1,7	1,0
- Inbertsioa eraikuntzan	-4,7	-2,7	-6,9	-7,1	-7,0	-6,6	-6,9	-4,8
Barne eskaria	0,1	1,3	-0,5	-0,9	-1,1	-1,0	-0,9	-0,1
Esportazioak	1,8	3,1	1,7	1,8	2,4	2,6	2,1	3,1
Inportazioak	1,4	2,4	0,9	0,7	0,4	0,8	0,7	1,5

Iturria: CEPREDE.

Aurreikuspen horiek guztiak ziurgabetasun handiak eta okertze are biziagoak baldintzatzen dituzte. Finantza merkatuetako arazoak larriagoak izan daitezke eta uste direnak baino ondorio okerragoak eta sakonagoak eduki, erantzun negatiboak okerragotzen.

Estatuko BPGren bilakaera eta ekarpenak
Urte arteko aldakuntza tasak

19. irudia



Iturria : INE eta CEPREDE.

EAErako aurreikuspenak epe laburrean

Kanpoko abagunea aipatu dena bezalakoa izanda, eta azken hilabeteetan ezagutu diren datuak uste zena baino okerragoa izanda, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak 2008ko udazkenean egin zituen aurreikuspenak eguneratu ditu eta zertxobait murriztu du 2008. urterako ekonomia aurreikuspena, baina zuzenketa nabarmena egin du 2009. urterako estimazioan. 2009. urterako aurreikuspenetan, ziurgabetasun handia dago, finantza krisiaren hedadura eta kreditu murrizketaren ondorioak noraino iritsiko diren jakiterik ez baitago. Ekonomiaren gertakariak eragilean konfiantza amildu dute, inoizko balio txikienetara eramanda. Konfiantza hori berreskuratzea ezinbestekoa da ekonomiaren hazkundera igotzen has dadin.

EAE-KO EKONOMIARENTZAKO AURREIKUSPENAK (2008ko abendua)

29. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	08.I	08.II	08.III	08.IV	2008	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009
BPG	3,1	2,6	1,9	1,0	2,2	0,7	0,3	0,5	0,6	0,5
Azken kontsumoa	2,9	2,2	1,7	1,3	2,0	1,2	1,1	1,0	1,2	1,1
Kontsumo pribatua	2,4	1,4	0,9	0,4	1,3	0,3	0,2	0,2	0,3	0,3
Kontsumo publikoa	5,1	5,6	5,1	4,9	5,2	4,9	5,0	4,5	4,7	4,8
Kapital eraketa gordina	3,1	3,2	2,0	0,5	2,2	0,1	-1,2	-0,8	-0,5	-0,6
Barne eskariaren ekarpena	3,2	2,6	1,9	1,3	2,3	1,0	0,8	0,7	0,9	0,8
Kanpo saldoaren ekarpena	-0,1	0,0	0,0	-0,3	-0,1	-0,2	-0,4	-0,1	-0,3	-0,3
Lehen arloa	5,3	-0,2	2,2	-6,5	0,2	-3,1	-6,4	-0,6	-7,7	-4,4
Industria	1,8	1,4	1,0	-0,5	0,9	-1,0	-1,6	-1,0	-0,6	-1,1
Eraikuntza	2,4	1,1	-1,0	-1,2	0,3	-1,4	-2,2	-1,5	-1,9	-1,8
Zerbitzuak	3,6	3,4	2,8	2,2	3,0	1,9	1,7	1,5	1,6	1,7
Balio erantsi gordina	3,0	2,6	1,9	1,0	2,1	0,7	0,3	0,5	0,6	0,5
Ekoizkinean g. zerga garbiak	3,5	3,1	1,9	1,2	2,4	1,0	0,6	0,7	0,8	0,8
BPGren deflatorea	3,7	4,1	4,0	3,5	3,8	2,8	2,0	1,8	1,8	2,1
Enplegua	1,7	1,1	0,6	0,1	0,9	-0,5	-0,9	-0,7	-0,7	-0,7
Langabezia tasa	3,3	3,5	3,5	4,4	3,7	4,7	5,0	5,3	5,5	5,1


Iturria: Eustat (2008ko lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoak) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

2008. urterako aurreikuspenak hazkunde txikiagoa iragartzen du, baina 2009. urtean joera hori areagotuko da. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren estimazioek hazkunde tasa %2,2an kokatzen dute 2008. urtean eta %0,5ean 2009. urtean. Barne eskariari dagokionez, EAEko

familiaren kontsumoa nabarmen gutxituko da. Une hauetan, lan merkatuaren bilakaeraz hedatu diren aurreikuspen ezkorrek, finantzazioa lortzeko zailtasunek, aberastasun efektuaren gutxitzeak eta konfiantza faltak zuhertasunaren alde jotzen dute eta familiek erosketak geroratzea eta gehiago aurreztea erabaki dute. Prezioen bilakaera apalagoa izateak mesedea egin dio kontsumoari eta honen beherakada sakonagoa ez izatea saihestu du. Horiek horrela izanda, familiaren kontsumoa %1,3 eta %0,3 areagotuko da, hurrenez hurren, 2008. eta 2009. urteetan. Beste aldetik, administrazio publikoetako gastuak bizitasun garrantzitsuari eutsiko dio eta berau izango da ekonomia orokorraren moteltzeari nolabaiteko konpentsazio partziala egingo dion agregatua.

EAEko BPGren bilakaera eta ekarpenak
Urte arteko aldakuntza tasak

20. irudia



Iturria Eustat eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Kapitaleko eraketa gordinak aurre egin beharko dio bat-bateko moteltze bati, hainbat faktorek eraginda, hala nola eskariaren ahultasunak, inbertitzaileen konfiantzaren okertzeak eta inbertitzeko egitasmo jakin batzuk martxan jartzea eragozten duten finantza merkatuaren kreditu murrizketek. Kapital eraketa gordina 2008. urte osoan %2,2 haziko dela espero da, baina 2009. urtean %-0,6ko aldakuntza tasa jasoko du. Kanpo arloari dagokionez, barne produktu gordinari egingo dion ekarpen negatiboa oso txikia izango da. Barne eskariaren galgak inportazioen erritmoaren murrizketa ekarriko du, baina esportazioak ere gutxiago haziko dira EAEko merkataritza bazkideen ekonomia ere egoera txarrean egongo delako.

Eskaintzaren ikuspegitik, moteltzeko joera orokorra da eta jarduera tasa guztietan hautematen da. Lehen arloan izan ezik, gainontzeko guztietan gaur eguneko aurreikuspena udazkenekoa baino ezkorragoa da. Industriarentzat, 2008ko batez besteko hazkunde tasa %0,9 izango dela aurreikusten da, baina 2009an tasa negatibotan sartuko da ziurrena. Eraikuntza arloaren hazkunde ere negatiboa izango da. Zerbitzuen hazkundeak gero eta txikiagoak izango dira aurreikusitako epealdian zehar, baina emaitza onenak jasoko dute. Hain zuzen ere, 2008. eta 2009. urteetarako aurreikusten diren hazkunde tasak, hurrenez hurren, %3,0 eta %1,7 dira.

Ekonomiaren egoera okerragoa denez, enpleguaren hazkunde aurreikuspenak ere beherantz berrikusi dira. Gaur egun, espero diren hazkunde tasak %0,9 2008an eta %-0,7 2009an dira. Tasa horiek 9.000 lanpostu berri inguru sortuko direla 2008ko batez bestean eta 6.000 lanpostu galduko direla 2009. urtean adierazi nahi dute. Sektore kaltetuena eraikuntza izango da, baina gainontzeko jarduera tasetan ere lan merkatuaren narriadura hautemango da. Ekoizkortasun irabazien bilakaeraz, estimazio honetan kontuan hartu den epealdian %1,2aren inguruan haziko direla aurreikusten da. Aurreikusitako langabezia tasa %3,7an kokatuko da 2008ko batez bestean eta %5,1era igoko da 2009an.

2008rako eta 2009rako aurreikuspenen taula makroekonomiko hau osatzeko orduan, zenbait aldagaien etorkizuneko bilakaeraz hipotesiak egin dira. Aldagai horien artean, prezioen indize orokorra, merkatuetako interes tasak, truke tasa eta, jakina, munduko ekonomia nagusien etorkizuneko egoera aipatu behar dira.

KPI-REN AURREIKUSPENAK (2008ko azaroa)

30. TAULA

Urte arteko aldakuntza tasak

	08.I	08.II	08.III	08.IV	2008	09.I	09.II	09.III	09.IV	2009
AEB	4,1	4,4	5,3	1,9	3,9	0,6	-0,5	-1,2	1,5	0,1
Eurogunea	3,4	3,7	3,8	2,5	3,3	1,8	1,3	1,1	2,1	1,6
Espainia	4,4	4,6	4,9	2,8	4,2	2,1	1,6	1,4	2,7	2,0
EAE	4,3	4,5	4,9	2,9	4,2	2,1	1,7	1,5	2,7	2,0

Iturria: Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Gaur eguneko aurreikuspenek barnean hartu dute lehengaien salneurrien merkatzea. Inflazioaren mehatxua arindu da eta ez dirudi berririo agertuko denik, ekonomia hazkundea ahul dagoen bitartean. Prezioen igoerak gero eta txikiagoak izan dira 2008ko abendua arte eta


joera hori 2009an zehar ere luzatuko da. BPGren deflatoreak jaitsiera hori barnean hartu du eta aldagai hori %3,8 haziko dela 2008an, baina %2,1 bakarrik 2009an, aurreikusten da.

Inflazioaren presiorik gabe, Europako Banku Zentralak denbora tarte baterako ahaztuko du prezioen gehiegizko igoeren aurkako borroka eta Eurogunearen hazkundera nola lagundu izango da bere lehentasuna. Bide horretatik, eta azken hilabeteetan egin dituen jaitsieren ondoren, oso litekeena da 2009. urtean zehar interes tasak berriro jaitea.

Aurreikuspenak egiteko erabili den truke tasak kontuan hartu du euroak dolarraren aldean duen sendotasuna. 2009. urtean zehar euroak dolarraren aldean balioa galduko duela aurreikusi da. Horren ondorioz, Europako diruak 2008ko batez bestean 1,48 dolarreko balioa izan badu ere, 2009. urteko batez bestean 1,35 dolarreko balioa markatuko du, kontuan hartu diren aurreikuspenen arabera.

KPIren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasak

21. irudia



Iturria: Eurostat, INE, Flores de Lemus Institutua (Carlos III Unibertsitatea) eta Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

